



# ALDAKORTASUNEAN OREKATZAILE

# **ALDAKORTASUNEAN OREKATZAILE**



Kordelieren karrika, 20. 64100 Baiona

06 84 52 74 35



# **AURKIBIDEA**

**Aurkezpena 07**

**01 - Euskal Herriko Laborantza Ganbara 09**

**02 - Donibane Garazi, 2017 39**

**03 - Bidarra, 2006 49**

**Mixel Berhocoirigoin 57**

Liburuxka hau ilustratzen duten hainbat argazki honako argazkilariek urririk eskaini dizkigute: Alternatiba, Enbata, ELA, Iker Elozegi, Korta, Rafoto, Jean-Louis Piquet, Rémi Rivière, Daniel Velez, Zigor.

Milesker denei.



# AURKEZPENA

Manu Robles-Arangiz Fundazioak, Iparraldean aritu den lehen hamabost urteetan, gutienez hamar formakuntza saio antolatu ditu, fundazioak bakarrik edo elkarlanean, Mixel Berhocoirigoinekin. Estratega paregabea eta lehen mailako ekintzailea, Mixel betidanik pedagogo handia izan da, formakuntzak eta transmisioak jendartearen eraldaketarako edozein proiektu kolektibotan izan behar luketen ezinbesteko lekuaz konbentzitu. Liburuxka honek omenaldia egiten dio noski, baina bereziki Mixelen engaiamenduaren zati hori luzaraztea ahalbidetuko duten tresnetarik bat izan nahi du.

Testu nagusia 2020ko urtarrilaren 22an Donibane Garazin eman zen Euskal Herriko Laborantza Ganbararen historiaren aurkezpenaren transkripzio osotik dator. Publikoa, Iparraldera aste bateko formakuntza politikoa segitzera etorri ziren Alternatiba eta ANV-COP21 mugimenduen frantses Estatu mailako animazio taldeko hogeita hamar bat arduradun gaztek osatzen zuten.

Ondoko orrialdeetan beste bi formakuntzaren pasarte zonbait eskaintzen dira, Mixel Berhocoirigoinekin eta Mixelekin batean Ipar Euskal Herria sakonki eraldatzen parte hartu duten beste militanteen epe luzerako hurbilpen estrategikoa ezin hobeki erakusten dutenak. Hor atzematen dugu ikusmolde hori, erradikala eta ber maneran pragmatikoa, haiek animatu dituen eta beste militante-belaunaldiei transmititzen jakin dutena.

Lehen pasarte multzoa, Bizik eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak, Donibane Garazin elkarlanean 2017ko uztailean antolatu Biziko arduradunen formakuntza astetik atera da.

Bigarrena zaharragoa da: hautaturiko pasarteak Manu Robles-Arangiz Fundazioak Bidarrain 2006an antolatu Iparraldeko abertzaletasunaren historiako formakuntza asteburu batekoak dira.

Mixel Berhocoirigoinek ereindako haziek hozitzen segi dezatela luzaz eta Euskal Herri eta mundu errukitsuago, askeago, justuago, solidarioago eta iraunkorragoa eraikitzen laguntzen.

2022ko apirilaren 8an,  
Manu Robles-Arangiz Fundazioa



01

**EUSKAL HERRIKO  
LABORANTZA GANBARA**  
**Donibane Garazi, urtarrilaren 22a**

**Mixel Berhocoirigoinek 2020ko urtarrilaren 22an  
eman formakuntza saioaren hitzez-hitzeko transkripzioa.  
Azpтитuluak, Manu Robles-Arangiz Fundazioarenak dira.**

Milesker gai honetaz duzuen interesagatik.

Eni buruz bi hitz: Mixel Berhocoirigoin naiz, gaur egun Donibane Garazi eskualdeko laborari erretretatua naiz. Etxaldeaz arduratzen ginen emaztearekin eta duela 6 edo 7 urte gure semea, bere bizilagunarekin eta 2 langilerekin, hemen plantatu da. Oroz gainera behi esnea ekoizten genuen eta zenbait fruitu. Elikagaien industriaren eskuetan uzten genituen eta haiek zuten dena eraldatzen. Bi lanpostu ziren tokian, gaur egun kasik lau badira.

Ene burua aurkezteko: enetzat garrantzitsua izan zen Euskaldun Gazteria (JAC) mugimenduan egin nuen ibilbidea. Mugimenduak oraino segitzen du eta 60-70-80ko hamarkadetan eragin handia ukan zuen.





Lehenago Euskaldun gazteria aipatzen nuen, mugimendu horretako militantea naizelako, enetzat eta beste frankorentzat funtsezko eskola izan baita Euskaldun gazteria. Militante anitz formatu zituen, “arduradun” asko eta eragile garrantzitsua izan zen baserri munduan orokorrean, eta bereziki laborantza munduan.

68 urtea baino lehen, nolabait larriki mintzatzeko, JAC mugimenduaren helburua mundu hobea eraikitzea zen, Gizona hobetzea, Gizona zentzu zabalean bistan da. Ez genuen gaur egungo hiztegi bera. Mundu hobea egiteko, Gizona hobea izan behar zen. Eta 68 urtearen biharamunean, kontsigna, edo erreferentzia, hauxe zen: mundu hobe bat egiteko, gizakia hobea izan behar da eta sistema ekonomikoa aldatu behar da. Zerbait premiatsua gehitu genuen beraz. Ohartu ginen orduan, JAC erakundeari esker, norberaren bizia, izan bizi pertsonala, profesionala ala beste, ez zela bizi bakartua baina sistema ekonomiko batean murgildua zela: sistema ekonomiko horrek nola funtzionatzen du? Ba ote dira interesak? Nork du kontrolatzen? Etab. Termino horren gibelean mundu bat bazen. Hori guzia erraiteko, hor analisi politikoagoan ginela, orokorragoan, ekonomikoagoan, klaseen eta interes desberdinen arteko loturak kontuan hartzen zituena... Testuinguru horretan zen laborari gazte belaunaldi berri bat sortu, jadanik erran dudan bezala Euskaldun gazteriak (JAC) erakundeetan formatuak, eta bestalde FNSEAko “Gazteen adar” ean.

FNSEA Laborari Sindikatuen Federazio Nazionalea da. Garai hartan Frantziako laborari sindikatu bakarra zen, botere publikoek onartzen zuten sindikatu bakarra. Erran nahi baita negoziaketetan errezebitzen zuten sindikatu bakarra, bere ekimenentzat, formakuntzentzat eta garapenarentzat dirua eskuratzen zuen sindikatu bakarra. Eta sindikatu horretako “Gazteak” adarrak ere, garatzen ari ziren analisi berriak, berenganatuak zituen, hau da, pentsamenduaren eta gizarte-antolaketaren zutabe guziak (arlotu pribatukoak barne) lurreratzen zituzten analisiak.

1987an Confédération Paysanne sindikatua sortu zuen taldeko kidea izan nintzen. Hori aitzin, ELB sindikatua sortu genuen 1982an, eta ondotik Confédération Paysanne sindikatura kide tu zen. ELB, FNSEA sindikatutik kanpo zen. Orduan FNSEA sindikatu bakarraren menpe ginen, beste sindikatuak ez ziren onartuak. ELB, Euskal Herriko Laborarien Batasuna erran nahi duen sigla da.

Pixkat denetan ibiliz denbora anitz pasatu nuen, bereziki Parisen Frantzia mailako taldean, eta gero hasi ginen Euskal Herriko Laborantza Ganbararen gorpuzten. Gai hau zaigu interesatzen arrats honetan. Joan den larunbatean ospatu genuen honen 15. urteburua. Laborantza Ganbara honen bulegoa utzi dut eta bizitzak aitzina segituko du.

## **HISTORIA BATEN PARTE**

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen historia kontatuko dizuet bere ingurunean eta historian kokatuz. Egiten dugunaren dinamika, egiten duzuenarena beti, historiaren barne da; hau ezinbestekoa iduritzen zait. Atzo egin genuenak dio egun egiten dugunari zentzua ematen eta egun egiten dugunak bihar eginen denari zentzua ematen dio. Perspektiba horretan ikusi behar dira gauzak, dinamika horretan, eta horrek alimaleko erantzukizuna ematen dio bakoitzari; hau da, ez baldin badugu jarraitzen, historia gelditzeaz gain, lehenago egin desegiteko arriskua hartzen dugu. Ez badugu segitzen, lehen eginak balioa galtzen du, gaur egun egiten dugunak ez baitu gaurko garrantzia soilik, garrantzia badu denboran ere.

Nago bakoitzak horrela pentsatzen duela. Hau guzia, errateko Euskal Herriko Laborantza Ganbara 2005ean sortu dela baina 1970 urteetatik hasiko naiz. Jendea ez da oroit, ene ustez, urte haietaz.

Euskal Herrian, baina seguraz ere beste leku batzuetan, lurralde guzietan, urte haiek garrantzitsuak izan ziren, 68 urtearen ondoko hamarkada zelako, eta eragina ukan zuen 1968an gertatutakoaren inarrosaldiak. Egoera osoa aldatu zuen segur aski mundu guzian, sektore guzietan eta laborantzan ere bai. Hiriaren eta baserriaren artean zabalkunde garaia izan zen, tarte garaia, eta ideia berriak, aitzineko urteetakoetatik osoki desberdinak, 1970eko hamarkadan erro tu ziren.

## **SISTEMA GALDEZKATU ETA GURE LURRALDEARI TRESNAK ESKAINI**

Beraz inplikatzeko gogoia ginuen. Hasieratik bi elementu gure ekintzaren eta engaiamenduen ardatz nagusi izan dira. Gure buruari erraten ginion zerbait sortu nahi izanez geroz, bi helburu hauek aldi berean kausitu behar ginituela. Laborantza motari eta produkzio sistemari lotua zen helburua. Euskal Herrian esnearen edo beste ekoizpenen prezioaren emendatzea ez zedin helburu bakarra izan, hau beharrezkoa bazen ere, hartarik bizi behar baigenuen. Baina zerumuga ez zitzaigun horretan gelditzen, zerumuga hauxe ginuen egiazki: “Nola ekoiztu? Zendako ekoizten dugu? Norentzat ekoizten dugu? Eta abar”. Gure helburua sistema zalantzan ezartzea zen, eta horrekin laborantza mota. Hori beraz oinarrizko zerbait izanen da, eta beste sindikatuarekiko ezberdintzen gaituen etengabeko gaia.

Bigarren erreferentzia eraikitzea zen, gure lurraldearentzat tresnak ematea. Hori oso garrantzitsua izan da Ipar Euskal Herrian. Erranen nuke hau izan dela beharbada garai hartan, Bretaina, Aveyron, Okzitania bezalako izaera azkarreko beste lurraldeekiko ezberdintasun bat. Guk pentsatu dugu Ipar Euskal Herria bere izaera zuen lurraldea zela. Berantago batzuk erranen dute hemen zerbait azkarra badela, lurraldeari begirako atxikimendua, eta guk ere, hasieratik baginuen sentimendu hori. Orduan hasieratik pentsatu ginuen eraiki behar ginuela, lurralde honi tresnak eman behar genizkiola, bere etorkizunari begira eragin dezan. Berantago erran dugu: bere buruaren jabe izan dadin, oso ikusmolde desberdina da, eta ez dena hurbilpen abertzalearen kutxa berean jarri behar.

Pentsatu dugu nunbaitekoak girela izatearen sentimenduaz ez dugula lotsatu behar. Britainia eta Okzitaniako lagun batzuek uste izan dute ideia horren gibelean bazela zerbait ez zena sana, ez zena noblea, ez zena aurrerakoa. Eta, beraz, aurrerakoitasunaren izenean, ezkerreko baloreen izenean, batzuk ikuspuntu hori baztertu dute, “Nor naiz? Nongoa naiz?” gure izaeratik soilik langilearena atxikitzeko.

Langileak gira baina ez hori bakarrik. Ez gira aldarrikapen ahal bezain erradikalak dituzten ekoizpen arduradunak bakarrik. Hori baino gehiago

## **LABORARI-LANGILE**

Orduan zen laborari gazteen artean sortu mugimendu berria, zeinean laborariak Laborari-langile izena hartu zuten, laborari-enpresaburuei kontrajarriz, guhauren burua azken kategoria honetan usu sartzen bagenuen ere. Enpresaburuak ginen, beraz, laburbilduz, nagusien, jabeen, menperatzaileen mundukoak ginen.

Hona zein izan zen laborari-langilearen definizio berri horren jatorria: gure produkzio-tresneriaren eta abereen jabe izanagatik, ez beti gure lurraren jabe haatik, ohartu ginen ekoizten genituen produktuen sal-prezioak esnetegiek eta hazkurri-industriak zizkigutela finkatzen. Beraz, enpresaburua definitzen badugu, jabetzaren ikuspuntutik, berdin enpresaburu gira, baina ez dugu boteretik, gure bizitzan eragiteko aukera izpirik, zeren laborari gisa ekoizpenak saltzen baititugu, baina gure ekoizpenak erosten dituenak -esnetegiak, elikagaien industriak- ditu prezioak finkatzen, hau enpresaburuen oinarritzko ardura delarik usaian...

Horretaz ohartu ginen eta mugimendu hartako partaide izan ginen. Gaia barnatu nahi duzuenentzat, mugimendu horren erreferentzia, guretzat eta Frantzia guziarentzat, orain zendua den Bernard Lambert laborari eta militante sindikalista izan zen. Eragin handiko gizona, "Laborariak klase borrokan" liburua idatzi zuena ("Les paysans dans la lutte des classes"), erreferentzia ideologikotzat hartu genuen liburua. Eta, beraz, gu, ene belaunaldia, funtsean, 50-55ean sortu diren militanteak, eta baita 46-50ean sortu zen aitzineko belaunaldia ere, zinez izpiritu hortaz elikatu gira. 70eko hamarkadan pentsatu genuen alternatiba bat sortu behar genuela Euskal Herrian, erreferentzia berriekiko alternatiba sindikala, analisi berriekin, laborarietara beste zerbaitekin proposatuko ziena, kontserbatismotik ateratuz, statu quo-a bazter utzirik, indar ekonomikoen, sozialen eta bereziki finantza-arlokoen menpekotasunetik askatuz.

begiraleak. Denboran beti hala izan da. Eta guk betiko ordena hortan nahasmendu pixka bat sartu nahi ginuen. Zerbait sortu nahi ginuen, beste zerbait eskaini.

Orduan ginuen funtsezko eztabaida izan, zinez beharrezkoa, gure ibilbidea partez argitzen duena. Ideia iraultzaileak ginituen, ideia arrunt berriak, iduriz aldaezina zen paisaia hartan biziki apurtzaileak. Beste eskualde batzuetan, gure adiskideek taldeak sortuak zituzten, laborari-langile elkarteak. Ez zuten sindikaturik sortu baina bai elkarteak. Hori interesatu zitzaigun. Gogoeta bat abiatu ginuen orduan ea guharen laborari-langile elkartea sortu behar ginuen. Ohartu ginen ez zela hain sinple: elkarte bat sortzen baginuen denek berdin pentsatzen ginuenen artean, laborari-langile erradikal eta iraultzaileen elkartea, erranez beste mundu bat posible zela jadanik laborarien munduan, pentsatu ginuen ez zuela horrek ondorio handirik ekarriko. Jende guztia FNSEAn gelditzen bazen, zertarako balio izanen zuen gu bakarrik kanpo egotea? Eta, beraz, haustura bat ireki behar baginuen, lan-alor berri bat, ez ginen militanteak bakarrik bildu behar, dozena batzuk ginen beharbada. Euskal Herriko milaka laborari sindikatu nagusian egoten baziren, gure helburuen galtzeko arriskua ginuen.

Horra zergatik FNSEAREN barnean engaiatu ginen, sindikatu harekin deusetan ados ez izanik ere. Laborariak han baitziren! Ondorioz, han engaiatu ginen, lan egin ginuen, sindikatua karraskan ibilarazi ginuen; aldarrikapen argiagoeekin ibilarazi ginuen hazkurri industriari buruz, lurraren alorreko borrokei buruz etab. Orogen buru FNSEAtik kanpo egin gogo ginuen lana obratu ginuen baina sindikatu hartan egonez. Ondorioz, gertatu beharra gertatu zen: memento batez gure lanaren eta FNSEAREN filosofiaren arteko kontraerrana agertu zen, jende multzo pollita erakartzen ginuen, FNSEAKO laborariei iruditzen zitzaien azkenean arrazoi ginuela eta gurekin bat egiten zuten, esnetegi edota etxalde okupazioetan parte hartzen zuten (guk ginituen lehen esnetegi okupazioak antolatu garai haietan)...

Laborariei iruditzen zitzaien gure borroka normala zela, zuzena zela, eta hor zeuden. Momento batez FNSEAREN filosofiarekiko kontraerrana hain zen nabaritu non sindikatuak berak salatu baigintuen, gutarik bereizi zen

gira, eta beste zerbait ere bagira, eta beste dimentsio hori beti garatu, landu eta onartu nahi izan dugu. Baina, kasu emanez, zeren eremu lerrakorrak baitira; baina, gisa oroz, guzia da lerrakorra. Beste batzuk horretaz baliatu nahi izan dira, eta argi ginuen lerratzeak saihestu behar zirela eta eremuz ez tronpatu.

Batzuk langilearen, klase sozialaren, sozialaren dimentsiotik at zen guzia baztertu nahi zuten. Horrek, hemen, Ipar Euskal Herrian nola kokatu giren ulertzeko parada ematen du, zendako, halako batean, Laborantza Ganbara bat nahi izan dugun.

Hau garrantzitsua iruditzen zait, eta beharbada zuentzat ez du gehiago deus erran nahi honek? Adibidez, berriz ere parentesi bat irekitzen dut hemen: armadak lurra hartzeko xedearen aurka Larzacen izan zen borrokan, urrundik parte hartu ginuen borroka bat izan zen, hainbat aldiz hara joanez. Irabazteko aukera eman duen leloa, hots, gauza bat gehiago ekarri duena, "Gardarem lo Larzac" zen, hots, beraien lurra zela, beraien hizkuntza zela, beraiek zirela. Ez zen bakarrik ardi esne ekoizleak zirela, ez zen hori bakarrik. Nik uste beste dimentsio horrek indar bat eman diela, energia bat, identifikatze bat, eta identifikatzen ginela Larzacekoak ez baginen ere. Hori guztia errateko hor marrazten dudana ez direla bakarrik errezetak, ez dut erran nahi horrekin irabazten dugunik, baina, indar bat, energia bat, identifikazio bat sortzeko aukera ematen du, eta baitezpadakoak dira borroka guzietan.

## **ENGAIATZEA... FNSEA-N**

FNSEAn engaiatu ginen beraz, sail sindikalean engaiatu nahi ginuelako, haatik gure ideiekin, bikainak zitzaizkigun ideia berri famatu haiekin. Pentsatzen ginuen herri hau, beste herrien gisan, eskuineko baloreak zituen sindikatu batek kontrolatua zela, tradizioan bermaturiko baloreak, laborariak paisaia politikoaren betiko ordenaren berme atxikitzen zituen sindikatua, langileei eta hiriari kontrajarriz, hauek iraultzaren eta gorrien irudia zutelarik gehiago. Baserrialdea eta laborariak ziren betiko ordenaren

## **ELB DEFINITZEN DA**

Beraz, lurralde honetan nagusitzen zen berunezko geruzaren bi oinarri atakatu ginituen zinez. Gure buruari erran genion: “gauzak argitu behar ditugu, azaldu behar dugu”. Beraz, noski, anitz esplikatu dugu, ezin delako holako abentura batean arrakastarik lortu, ez bada esplikatzen. Esplikaltzeak erran nahi du jendeari ulertarazteko moldatu behar dela. Gero, ados izatea ala ez, beste gauza bat da. Baina gutienez badituzte elementuak, ulertzen dute.

Sindikaturia sortu ginuenean, laborari gisa definitu ginen, horrek ekartzen zuen dimentsio sozialarekin –handiak, ttipiak, interesak, elikagaien industria, bankuak– azterketa oso zehatzarekin. Analisi horretan, laborari gisa, Euskal Herrian, laborari gisa hemen, historia duen lurralde honetan, bere kultura duena, arazoak dituen, bere burua eraiki nahi duena, etab.

Beste nonbait izaten ahal ginen, ez dugu merezimendurik hemen egoteagatik. Beste nonbait izaten ahal ginen eta beste lurralde horrekin identifikatuko ginen. Hemen, dimentsio politiko eta kulturala duen Euskal Herriko lurralde honekin identifikatzen gira. Zati bat Frantzian eta beste zati bat Espainian duen Euskal Herrikoak. Beraz, ez gira non nahiko laborari. Eta, hirugarren elementua, nazioarteko komunitatearen kide gira: ez da hemengoak girelako, eta hemengoak izatea aldarrikatzen eta asumitzen dugulako, gure mundua Euskal Herrian bukatzen dela. Nazioarteko komunitatearen kide gira eta nazioarteko maila honek deklinabide azkarra du guregan ere laborari gisa. Hunkitzen gaitu ere gure laborari lanbidean, munduko herritar senditzea laborari gisa.

Munduko beste laborarien artean gu ere laborari bagira, erran nahi du ondoko galderek halako bat eragiten digutela: nola gira laborari, munduko beste laborariekiko? Horrek galdekatzen ote gaitu? Hasteko galdekatu behar gaitu: hemen behi esnea ekoiztu behar ote dugu edo gure xerriak bazkatu Brasildik etortzen den sojarekin edo kanpotik heldu diren kakahueteekin? Kanpoko lurra erabili behar ote dugu gure kabalen elikatzeko, lurralde hartan badirelarik bizi behar duten jendeak eta elikadura arazoak dituztenak? Munduko herritar izatearen sentimenduak horretan ere galdekatzen gaitu.



erranez ez ginela bide onean. Beraz parioa irabazia ginuen: nahi ez ginuen sindikatuan sartu ginen erakusteko ez zela sindikatu egokia. Aktibo izan girelako eta sindikatuak bere egiazko aurpegia erakutsi duelako hainbat gauza argitu dira eta 1980ko hamarkadaren hasieran gure burua abian jartzeko prest ginela erabakitzea ahalbidetu zuen, zeren ez baitzen gure sindikatua, teoriarik (lehendik ere baginakien hori intelektualki), ezta praktikan ere, hori frogatu ginuen, eta gutaz aparte beste batzuek ulertu zuten hori.

## **ELB-REN SORTZEA**

Orduan sortu ginuen ELB, hau da, "Euskal Laborarien Batasuna". Ez da izigarri izen iraultzailea baina hein batean hautu estrategikoa izan zen. Baginakien FNSEAREN eta kontserbadoreen leloa "Batasuna indarra da" zela, beraz, ezberdin pentsatzen zuten guziak banatzaileak ziren. Baginakien lelo hori aurpegiatuko zigutela. Horregatik hartu ginuen izen bezala "Euskal Laborarien Batasuna". Zeren Batasunak soilik zentzua duelako interes bateragarriak dituzten pertsonak biltzen baditu. Interes kontrajarriak dituen jendea biltzeak ez du zentzurik: ahulenen eta behartsuenen kaltetan egiten da beti.

Beraz, 1982an ELB erakundea sortu ginuen. Euskal Herrian oso testuinguru politiko korapilatsuan. Ekintza armatuak baziren. Ondorioz, bi taburi edo bi harresiri buru egin genien: bata sindikatuaren batasuna haustea zen erranez absolutoan ez zuela zentzurik, ez bazen interes berak dituzten pertsonen batasuna.

Beste "tabua" Ipar Euskal Herri mailan antolatzea zen: zer erran nahi zuen ofizialki existitzen ez zen Ipar Euskal Herri mailan antolatzeak? Gaur egun, Euskal Elkargoa badugu, esparru juridikoa da. Garai hartan, arras urrun ginen. Gaur egun, kasik nehorik ez luke pentsatuko departamendua oinarritzat izango lukeen elkarte bat sortzea. Edo "Biarno" edo "Ipar Euskal Herria" ditu oinarritzat. Hala baita, naturala da, lurraldeari dagokio. Garai hartan, kontrakoa zen.

mugimendu sozialean parte hartu du, beste aldarrikapen batzuekin hala nola euskararen ko-ofizialtasuna, Ipar Euskal Herriarendako instituzio bat, etab. Horregatik parte hartu dugu Pechiney-n greban ziren langileen sustengu borroketan etab. Beraz laborari gira eta herritar ere: beti bi elementu horiek agerrarazi ditugu.

Lantzen entseatu giren beste erreferentzia bikoitz bat bada ere, eraiki nahi dugun laborantza eta gizartearena. Laborantza gure lurraldean nahi dugun gizartearen deklinazio bat izanki. Borroka politikoa, sindikala bada: eskubide batzuk, prezio batzuk, babes, etab. aldarrikatzen ditut. Bankuari, industria agro-alimentarioari, metaketaren aldeko, etab. begira. Edo laborantza politikei edo Europari, etab. begira. Lan sindikala da. Beste alor batek ere engaiamendua eskatzen du. Garapena deitzen dugun arloak. Hau da alternatiben eraikitzeak. Biak beharrezkoak dira, zeren borroka politiko bat eramaiten dugularik, beste esparru politiko baten lortzeko egiten baitugu. Baina beste esparru politiko hori plantan ezartzea goaitatzean, nahi duguna erdietsi bitartean, bizi behar dugu. Eta guk nahi duguna, laborari ainitzekin den Euskal Herria atxikitzen segitzea da. Baina, onuragarriagoak diren erabakiak hartu bitartean, bizi behar dugu. Alternatibak atzeman behar dira, goaitatzeko sistemak atxeman behar dira, beharbada behin-behineko sistemak direnak, baina bederen laborariei, hemen eta orain, bizitzeko parada ematen dietenak, eta ahal bezain ongi bizitzea ahalbidetzen dutenak. Sortzen ditugun sistema eta alternatibek bizitzea ahalbidetu behar digute eta horrez gain, biharko nahi dugun laborantza-motaren aitzin-figurazioa izan behar dute ere. Sortzen ditugun alternatiben sistemek lurra errespetatu behar dute, laborariak kontrolatu behar dituzte, lansariei begira ahal bezain zuzenak izan behar dira, etab. Biak badira beraz, eta biak premiazkoak dira; eta hori etengabeko eztabaida da, Frantzia mailan bizi izan dudana Confédération Paysanne-en nintzelarik zenbait urtez. Usu bien artean gatazka edo eztabaida bada eta ulertu behar dena, honek pragmatismo/erradikalismo dialektika horrekin bat egiten duela – eztabaida eta hausnarketa horietan zireztela badakit. Utopia beharrezkoa da, aldarrikatzea beharrezkoa da baina gaur egungo errealitatea ere kontuan hartu behar da, zeinetan sortu eta eraiki behar den. Aldarrikatzea ez da aski, gure espazioan bederen.

Eta galdekatzen ere FNSEAREN beste oinarri bati buruz: ekoiztea esportatzeko. Hori da beren lema Ekoiztu esportatzeko, munduko azkarrenak gira, bistan da, ez da dudan ezarri behar, azkarrenak gira beraz esportatu behar da, planeta elikatu behar dugu. Laborari gisa galdekatzen gaitu, ekoizle gisa ere. Hots hiru maila horietan definitu gira.

Hiru maila horiek erreferentziak dira guretzat beti. Elementu berri bat gehitu dugu: gure ekintza-moldeak, ekintza-molde ez bortitzak izanen zirela erran dugu. Horren errateak zentzua bazuen Euskal Herriko garai hartako testuinguruan. Gure zerumuga ekintza ez bortitzak eramatea izanen da bi arrazoirengatik: alde batetik arrazoi etikoengatik, hau da, gure egungo borroka-moldeek eraikitzen ari giren gizartea itxuratzen dutela, eta hori funtsezkoa da. Eta bigarren elementua: ekintza bortitzak kontra-produktiboak dira eta botereak erabiltzen ditu aldarrikapenen hausteko edo ekintza bortitzak sustengatzen dituen helburuen kontra.

## **ETENGABE MENDI GAIN LERROAN**

Beraz ingurumena argi da, gauzak ongi kokatuak, eta horietan hasi ginuen gure sindikatu lana. Bizi militantea eta borroka eremuak beti konplikatua dira. Gauza askorentzat mendi gailurretan bezala gira. Pentsu dut badakizuela edo jakinen duzuela, beti oreka istorio da. Beti orekan gira. Beti lotu behar ditugu kontrakoak edo aurkakoak iduri duten gauzak. Adibidez beti kasu eman dugu Euskal Herrikoak izateari, Euskal Herri heinean jokatzeari, baina ez Euskal Herrian bakarrik. Horregatik Confédération Paysanne-ra kide tu gira Estatu mailan, baita Confédération Paysanne Internationale-ra, gaur Via Campesina izenarekin ezagutua dena. Beraz, hemengoak gira, baina ez hemengoak bakarrik, eta hori ere oreka bat da. Sobera sartzen bagira batean, bestearen kaltetan da; hein batean ontzi komunikatuak dira.

Laborari eta herritar gira ere bai: erakunde sindikala gira eta erakunde profesional gisa agertzen gira ere bai, erran nahi baita baditugula gure lanbidearen interes propioak. Hori urrunago pusatzen badugu, erran nahiko luke korporatismo batera heltzen ahalko ginatekela. Hots profesionalak gira baina mugimendu soziala ere bai. Horregatik ELBk BATERA izena duen

## **EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA BATEN ALDARRIKAPENA**

Laborantza mailan, hiru botere-leku ziren: Europa, Estatuak eta Departamendua. Orain, hori pixka bat aldatzen da Eskualdearen garrantzia handituz baitoa. Hemendik aitzina Europa, Eskualdea eta Euskal Elkargoak garrantzia gehiago hartuko dute.

Desadostasuna gero eta nabarmenagoa zen Departamenduko Laborantza Ganberarekin, gure emaitzak emendatzen ziren eta FDSEArena Ipar Euskal Herriaren mailan jausten zen. Beraz, gure buruari erran ginion Ganbera hori ez zela gurea, sindikatu hori ez zela gurea erraten ginuen bezala. Beste ganbera bat sortu behar ginuela.

Gure buruari ere erran ginion Departamenduko Laborantza Ganbera laborantza produktibista, intentsibo eta esportatzailearen aldekoa zela. Eredua beti kantitatea zelarik, ez direlarik inoiz kalitatea, balio erantsia, sozial edo ingurumen arloa, etab. kontuan hartuak izan. Beraz, beste zerbaitek behar zen eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara baten ideia garatu ginuen, lehenik aldarrikapen gisa.

Euskal Herrian Laborantza Ganbara bat behar dugu hainbat arrazoiengatik: laborantza produktibista ez den beste laborantza mota bat behar dugulako, hemengo lurraldeari dagokiolako, baserri ttipiak, mendian, belar-eremuak, ez da zereal kultura handirik. Eta gero, Laborantza Ganbara bat erakunde instituzionala da, erakunde publikoa ere. Eta existitzen ez zen Ipar Euskal Herri honentzat, aitorpen instituzionalik eta esparru publikorik gabe den lurraldearentzat Laborantza Ganbara baten emateak ezagupenaren arloan lehen maila bat lortzea erran nahi zuen. Lurralde hau existitzea nahi genuelako Euskal Herriko Laborantza Ganbara aldarrikatu da.

Funtsean, 1995ean hasi ginuen aldarrikapena eta Ganbara 2005ean hasi zen. Beraz, hamar urtez aldarrikatzen arizan gira. Baina ez ginuen hori bakarrik egin; lanean segitu ginuen, sindikatuak bere lan-sail guzietan lanean segitu zuen eta memento batean Laborantza Ganbara baten ideia hau gehitu ginuen. Gure buruari erraten ginion Laborantza Ganbararen aldarrikapen hori laborariak bakarrik eramaten bazuten zailtasunak izanen lituzkeela aitzina

## **ALTERNATIBAK ERAIKI**

Bi puntu hauek zinez gogoetatuak izan dira, sakonki, eta alternatiben eraikitzen beti entseatu gira. Ez gira segur perfektuak, ez da gure historiaren edo girenaren mito bat egin behar. Baina, alternatiben eraikitzen entseatu gira: GFA mutuala, Laborantza Lur Elkargo bat, gaur egun Lurzaindia dena, gure "Terre de Liens" delakoa. GFA, lurren menperatzera entseatzeko sortu zen. Laborari bat kanporatua zelarik etxalde baten erosteko: etxaldea kolektiboki erosten ginuen laboraria berriz aloitzeko. Istorio luze bat izan da horren inguruan. Alternatibak ziren. Baginakien GFArekin lurren arazo guziak ez ginituela konpontzen ahalko, arazoa ainitzez korapilatsuagoa eta politikoagoa baita, baina momentuan egoera konkretuentzat aterabideak atxeman behar dira.

Etxe ekoizleen elkarte bat ere sortu dugu, gaur egun IDOKI izenarekin ezagutzen duguna. Aski azkarrak ez diren etxaldeentzat edo industria agro-alimentarioak mehatxatzen dituen jendeentzat alternatiba batzuk dira. Elkarte honek zuzenki saltzea eta balio erantsia ematea ahalbidetzen du. Hemen eta orain bizitzeko parada ukaiteko. Beraz, laborari ekoizleen elkarte hau baldintzen kaier zorrotzekin sortu ginuen, etxaldeko ekoizpena molde intentsiboan eta industrialki egiten ahal delako, Idokin aldiz, etxalde ekoizpen jasangarria eta herrikoia nahi ginuen. Berdin gertatu da ekoizpen biologikoekin: elkarte bat sortu dugu laborantza biologikoaren garatzeko. Testuinguru horretan pentsatu ginuen Euskal Herrian Laborantza Ganbara bat ere sortu behar ginuela. Zergatik Euskal Herrian? Zergatik hartu du halako garrantzia? Zeren ELB sindikatua sortu ginuenean Ipar Euskal Herri mailan sortu ginuen, baina gero departamendu mailan sartu ginuen, Departamenduko Laborantza Ganbara mailan. Gatazka bat izan zen, noski, proiektu desberdinak ginituelako. Desadostasunak izan dira, hausturak... Sei urtetik behin, Laborantza Ganbara mailan hauteskundeak egiten dira, hauteskunde profesionalak, eta sei urtetarik behin gure sindikatua garatzen zen. Laborantza mailan botere lekua den departamentu-mailan laborantza-orientazioaren inguruan gatazka gehiago sartzen ginuen heinean, aitzinamenduak lortzen genituen bozen mailan.

Baina badakigu ere hein hura ez dela betirako lortua, eta halako batean kurba apaltzen dela, edo nahi genuena lortu dugulako eta orduan dena ongi doalako, edo ez dugulako nahi genuena lortu eta esperantza galtzen ari girelako, desmobilizatzen girelako... kurba bekituz doalarik.

Bada nik horrela irudikatzen dudan aldarrikapenaren kurba bat. Hau molde konkretuan baieztatzeko parada ukan dut. Bizi izan dudanetik partituz hau guzia kontatzen dut. Pentsatzen ginuen gailurrean ginela hor eta onespena lortzen ez baginuen, apalduko ginela. Eta ondotik behar bada beste ziklo batzuk gertatzen dira, baina biziki zaila da patarra berriz igaitea. Beraz zerbait egiten ahal baldin badugu gailurrean girelarik, zinez egin behar da. Eta orduan hasi gira gogoetatzen nola egin indar guzi horren kapitalizatzeko, indar hori nola bildu gauzak aldatzeko. Laborantza ganbara hau ukatzen baldin badigute, orduan zaigu ideia bururatu. Bortizkeriarik ezaren logikan ginen, baina baita desobedientzia zibilarenean ere eta alde horretatik hasi gira bilatzen: ELBren besta bat baginuen Alduden 2003an eta José Bové zen besta horretako gomita, eta laborantza ganbararen aldeko aldarrikapena pil-pilean zen orduan, prentsa guziak aipatzen zuen, ez bakarrik laborarien munduak, gai potoloa zen zinez: alimaleko zerbait lortuko ote ginuen azkenean?

Gaia aipatu dugu orduan José Bovéekin eta Larzac-ekin alderatu dugu. Josék erran digu: “guk Larzac-en La Blaquièrre arditegiarekin egin genuena egin behar da” Ez dakit Larzac-eko historiaren berri ukan duzuenez: legezkanpoko arditegi bat eraiki zuten armadaren lurretan, bazter guzietatik etorri jende batzuekin, obralekua antolatua zen, ondoko mezuari jarraikiz: laborantzako lurra geldituko da hau. Erromesaldi lekua bilakatu da La Blaquièrre arditegi hau. José Bovék erran zigun: “obralekuak, ados izanen diren ofiziale batzuekin antolatzen dituzue eta obraleku bakoitza gertakari politikoa izanen da: murrak altxatzea, etab.” Hau pista bat izan zitekeela bururatu zitzaigun. Eta gero, José Bové partitu zen bere ideiak erein ondoren. Egia erran, gure pentsamenduekin bat egiten zuten ideiak. Aldi berean, BATERA mugimendua ere pentsaketetan zebilen.

joateko. Jendarte osoari azaldu behar genion denen ardura zela, Laborantza Ganbararen gibelean laborantza mota bat, eta, beraz, paisaia, airearen kalitatea, ura, bioaniztasuna atzematen zirela. Eta horrek denak hunkitzen gaitu. Beraz Euskal Herriko Laborantza Ganbara bat aldarrikatzean eduki horiekin da. Ez da etxe bat gehiago.

Kontsumitzaileei, ingurumenaren defendatzaileei, elkarteei, langile sindikatuei eta hautetsiei buruz esplikatze lan handia eraman dugu. Hautetsiekin ainitz lan egin dugu esplikatzeko aldarrikapen horrek lurralde guzia aintzat hartzen zuela eta partzuer izatea galdegiten genien, ez bakarrik sustengatuz, baina aldarrikapenaren eragile izanez, proiektua elkarrekin gauzatua izan zedin.

Bizkitartean sindikatu lan klasikoa eraman dugu, eta aldarrikapenari begira, molde guzietako ekintzak erabili ditugu. Okupazio, blokatze eta beste mota batzuetako ekintza azkarrak burutu ditugu, pedagogia ekintza ainitzekin batean. Pedagogia ausarki erabiltzeak du jendeen adostasuna ahalbidetu eta berantago mugimendu garrantzitsu hori sorrarazi Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sortzearen garaian.

Aldarrikapenak kasik erantzun baikorra ukan du lehen aldi batean. Alabainan Lionel Jospin Lehen Ministroaren laborantzako aholkulariek harrera eskaini ziguten Matignonen 2002an. Biziki urrun joan da, biziki fite, eta ez da onartua izan. Onespena trabatu duten kontrako indar batzuk baziren, gure aldarrikapenak ez dira onartu. Mugimendu sozial biziki garrantzitsua sortu dugu orduan, laborarien artean baina baita mundu hau baino haratago zihoana ere.

## **BIDEGURUTZEA**

Eta orduan galdera bat agertu da: nola egiten dugu? Niri iruditzen zait aldarrikapenek kurba batzuk segitzen dituztela; halako batean kurba igaiten da, sostengua agertzen da, onespena sortzen dugu eta kurba hein batetara heltzen da eta dena egiten dugu ahal bezain hein gorenean izan dadin.

Honen berri erregulariki eman ginuen eta gure buruari ezarri genion zorigaiztoko urtebeteko epea laster bukatzen zen, 2004. urtearen bukaeran ginen. Hain zuzen, harreman biziki berezia ginuen lehenagotik ezagutzen ginuen eta Hego Euskal Herrian 110.000 kiderekin gehiengo duen ELA langile sindikatuarekin, bai eta LAB sindikatuarekin (ELA eta LAB bi sindikatu nagusiak zirelarik), baina beste sindikatu berezietuekin ere (irakasleenak, garraiolariak, etab.). ELA ezagutu ginuen bereziki ETArekin borroka armatuan izandako su-etenen garaian, Lizarra-Garazi deitzen zen su-etenean, 14 edo 15 hilabeteko su-etenean, ETAk, tamalez behin-behinean, bere ekintza armatuak eten zituen. Saiakera bat izan zen, bide batez ongi funtzionatu zuena, indar sozialek, indar herritarrek iniziatiba har zezaten, Euskal Herriaren eraikuntzan.

Memento horretan ginuen ELA ezagutu eta argiki ondorioztatu ginuen oinarrizko gauza anitzek elkartzen gintuztela eta gure analisisetan gogaidetasuna baginuela.

Ezarri ginuen epe-muga hurbiltzen ari zela-eta, ELA etorri zitzaigun ikustera eta erran zigun: "Zuek eramaten duzuen borroka, desobedientziarena, Estatuarekiko konfrontazio borroka hau, eredugarria da guretzat, aitzinikusten du guk eraman behar dugun borroka eta borroka militarra ordezkatu behar duen borroka". Eta ondorioz, gure aldarrikapena sustatzeko eta gure desmarta zenbateraino onartzen zuten errateko, ondokoa erran ziguten: "Erosiko dizuegu egoitza; behar duzuen egoitza hautatzen duzue, behar duzuen gunean, erosiko dugu eta zuen esku utziko!".

Zinez pisu handiko indargarria zen, ez ginuelarik oraino pentsatu lokalari! Egituraren edukiari buruz pentsatu ginuen bereziki. Baina egia da leku bat eskuratu bezain laster gure ekintzari mamia ematen diogula. Espiritua, arima eta pentsamendua asko landu ginituen, baina egoitzarekin gorputza eman genion, eta ikusten dena gorputza da. Ondorioz, hori sustengu izigarri garrantzitsua zen, elementu erabakigarrietako bat. Uste dut hori ukan ez baginu, istorioa bestelakoa izanen zela, baina hala ere istorio bat izanen zen.



Desobedientzia ekintzen mugimendu honetan ginen eta oztopo hori nola saihestu xerkatzen ari, laborantza, Estatu barnean den Estatu hau dena giltzapetu duten zutabeekin. Beraz, mezu hau guri zegokigun funtsean baina ez gintuen guziz asetzen: hausnarketara itzuliz, gure buruari erran genion ez ginuela etxe bat sortu behar, baizik eta gure etxeak edukiko zuena. Gure buruari erran genion: “egitura sortu behar dugu, eta etxeari dagokionez, gero ikusiko dugu.” Obra baten inguruan elkartasun mugimendu biziki indartsua antola genezake bi urtez. Hasteko eta bat, Laborantza Ganbara hau sor dezagun.

## **ULTIMATUM SORTZAILEA**

ELBren ezohiko Biltzar Nagusiak 2003an isilpean bozkatzuz honako deliberamendua hartu zuen: “Estatuak ez badu Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sortzearentzat behar den jarrera hartzen, ELBk urtebete baten buruan sortuko du”. Gure buruari erran genion hori zela egin behar ginuen eta gero ikusiko ginuela non kokatuko zen. Edukiak zuen balioa.

Beraz, pario zoro hori abiarazi ginuen, lantaldeak sortu ginituen: laborariak, kontsumitzaileak, ekoizle biologikoak, etxe-ekoizleak. Egitura hauek sortuak ziren jada, baina gai zehatzei buruzko ad hoc egiturak ziren. Sortu nahi ginuen Ganbara zeharkakoa zen, baserri eremuari, laborantzari, eta abarri buruzko gai guziak landuko zituen.

Proiektuari, antolakuntzari, osaketari, finantzaketari eta beste gaiei buruz lantaldeak sortu ginituen. Eztabaidak oso aberatsak izan ziren eta erregulariki publikoan aurkezten ginuen lan-ildoan inguruko hausnarketan aitziatzea, egitura berriaren osaera, etab. Gure borroken eta gure buruari eman genizkion erreferentzien luzapen gisa, gure buruari laborariak ginela, baina herritarrak ere, genion. Laborantzari loturiko gaiak ez zirela baserriarren kontuak bakarrik, korporatibismoa ere sufritu ginuela, laborantza gaiek, hala nola, elikadurak, paisaiak, ingurumenak jendarte osoa hunkitzen zutela, eta, beraz, gizarte osoa sartu behar zela etortzekotan zen Laborantza Ganbarako organigraman.

3 urte eman genituen administrazioarekiko auzietan, zigor auzitegian etab. Auzi guziak irabazi ginituen, hamar bat ukan ginituen, eta horrek lanean segitzeko parada eman digu.

Lortu dugula erraten delarik, irabazi dugula erratean, ez da sekulan irabazia. Borroka bat ez da sekulan galdua edo irabazia.... Mementoko ibilbidea atxikitzen dugu, aitzinatzen gira baina beti hauskorrak gira zeren ez gira bakarrik ingurnean. Interes kontraezarriak badira, eta egunero sendotu behar gira, indartu behar gira. Beraz, inoiz ez diozu zure buruari erran behar irabazia dela, gero koska bat jausten zirelako, kudeaketan sartzen zira, errutinan, eta engainatua izateko arriskua heldu da. Orduan, izan nahi ez ginuena bilakatzeko arriskua bada. Beraz, beti tentsioan egon behar da.

Lortu dugula erraten da, baina hori guzia aitzinetik egin den guziari esker gertatu da: eraiki ginuen nortasun guziari, lekuaren gainean egin lan guziari, pedagogiari eta aldi berean ekintza sendoei, eta estrategia ezberdinekiko osagarritasunari esker. Hori guzia, hain zuzen ere hasieratik hautatuz beti esplikatzea bai laborariei bai eta hautetsiei. Beti kontsideratu dugu hautetsiak eragile garrantzitsuak zirela. Zeren, hala ere, botere politiko batentzat, indarrean den botere batentzat, jendartearen lehen ordezkariak hautetsiak dira, eta koherentzia izan behar da. Ahal bezain bat saihestu behar den arazoetako bat, ezin baldin bada osoki saihestu ere, hautetsien eta herritarren mezuaren arteko deskonexioa da.

Egin dugun lan guzia da erronka abiatzeko, Prefetari aurre egiteko, Estatuari epaitegietan aurre egiteko... aski indartsu ezarri gaituena. Zeren auzitegietan irabazi baitugu argumento juridikoak lagun baina baita ordezkatzin ginuen indarra lagun. Gauza batzuk ez dira zorrozki juridikoak baina eragina dute juridikoan: prokuradoreak eta epaileak ez dira estralurtarrak, hemen bizi dira, dimentsio juridikoa bizi dute baina ez hori bakarrik. Denak badu garrantzia, ez naiz gai errateko zein proportzioan, baina hori guzia garrantzitsua da.

## **KONFRONTAZIO DEMOKRATIKOA**

ELAk teorizatu zuenarekin bate giten zuen horrek: konfrontazio demokratikoa zen. Konfrontazioa izan behar da, hori normala da, bizitza konfrontazioz osatua da: interesen, jendarte eredu, eta abarren konfrontazioak. Baina konfrontazioak demokratikoa izan behar du. ELAk errana zigun: “Zuek, eramaten duzuen borrokarekin, konfrontazio demokratiko honen adibide zarete, beraz, sustengatzen zaituztegu, eta publikoki sustengatzen zaituztegu”.

Beraz, egoitza baginuen, proiektua prest zen, hasteko prest ginen, gomitak bidali ginituen, etab. Orduan arras beste istorio bat hasi zen. Prefetak erran zigun: “Kasu, hau egiten baduzue legez kanpo zirezte, nik epaitegira eramane zaituztet”... Xehetasunak bazter uzten ditut eta horrela, ene aurkezpenean ordu bat aurreztuko dut!

Beraz, balizko erasoei ahal bezain sarrera guti eskaintzeko legelariekin ainitz lan egin ondoren egitura sortu dugu. Estatutuak landu eta “Euskal Herriko Laborantza Ganbara” deitza erabaki ginuen, baina euskaraz, baginakielako “Chambre d’agriculture” errateko moldea Baserri Kodeak babesten zuela. Egitura kasu eginez sortu ginuen. Ondotik 2 edo 3 urteko gatazka juridikoan sartu ginen, epaitegiz epaitegi. Gu legez-kanpo uzteko saiakerak izan ziren, Prefetak uste zuelako erakunde publiko batekin nahasmena sortzen ari ginela eta, beraz, jendeak pentsa zezakeela bi Laborantza Ganbera bazirela. Guk ezetz erran genien, ez zela inoiz gure asmoa izan, eta jendeek hori pentsatzen bazuten, tronpatzen zirela; ez ginuen inoiz hori pentsatu!

Gure proiektua beste zerbait zela esplikatu genien, elkarte bat zela, hautatu izenak zalantzarik gabe “Euskal Herriko Laborantza Ganbara” erran nahi zuela baina euskaraz zela eta Frantziako Estatuak ez zuela euskara ulertzen, Euskara ez zela ofiziala, eta ezin dela ofiziala izan gaitzesteko orduan, eta ez ofiziala bestela. Edo ofiziala da edo ez da.

Azken finean irabazi ginuen. Estatuak helegitea ezarri zuen, mobilizazio oso gogorak izan ziren, Biziren ildo urratzaileek ainitz lagundu gintuzten,

sistemak dira. Kultura bakarren ordean aniztasuna... Adibide bat emateko, lan handia egin dugu Donapaleu inguruko eremu batean artoarekin bakarrik zen lur-landuaren aldatzeko, errotazioak sartzeko, batak bestea osatzen duten lur-lantzeak egiteko, ureztatze-sistematik ateratzeko eta ur gutiago behar duten sistemetara joateko, autonomoak direnak, hots ureztatzea behar ez dutenak. Hauek guziak urrats sendoak dira.

Ber maneran, tokian tokiko balio erantsia sortzearen parte diren tokiko sailak garatzen eta sortzen segitzen dugu laborari taldeekin. Zirkuituak ekoizpenetik kontsumora birtokiratzea entseatzeko, behar den denbora hartuz, gure lurraldeko elikadura buruaskitasuna antolatzen saiatzen gara, tokian ekoizten duguna tokian berean kontsumitu dadin. Baina, gainera, eta gaur egungo proiektuetako bat da, tokian kontsumitzen dena tokian berean ekoizten saiatzen gara. Eta hau arras beste zerbait da. Adibidez, proteina begetaletan defizit handia dugu, bai animalien eta bai jendeen elikadurarendako. Beraz, ekoizten saiatu behar dugu. Baratzeko ekoizpenak eta fruituak ere ainitz falta zaizkigu, eta horiek ekoiztera saiatzen gara. Horrek ez du erran nahi autartziko izan nahi dugunik eta ez dugula besteen beharrik izan nahi, baina autonomiaren gaiarekin lotua da, eta klima eta energia gaietan eragina badu. Horrek ere eragin politikoa badu, zeren gehiago birtokiratuz, gauzak lurraldean gehiago antolatzen ditugu, ekoizpen sistemak eta zirkuituak, boterea guretzat dugu, botereak ekonomia segitzen baitu.

Ekonomiak gure lurraldetik haratago doazen eta nazioarteraino joaten ahal diren zirkuitu luzeak segitzen dituenean, hori antolatzen, kontrolatzen eta erabakitzen duen botere politikoa, noski, ez da lurraldekoa, beste nonbait da. Eta zirkuitu ekonomiko bat, antolakuntza ekonomiko bat berriz lurralde mailan ezartzen dugunean, beraz, birtokiratzea antolatzen dugunean, erabakiak hartzeko sistemak berriz ezartzen ditugu lurralde honetan: guk erabakitzen dugu prezioa, guk erabakitzen dugu nola, etab. Hori bera gertatzen da herriko garia, herriko ogia, herriko haragia (Herriko ogia; Herriko haragia) egiten dugunean, etab. Prezioak finkatzen ditugu eta ekoizpen hori nora doan ikusten dugu, boterea berreskuratzen dugu. Botereak beti ekonomia segitzen du eta ekonomia nazioartean finantzak

## **EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA**

Bereziki herritarrak, jendartea eta laborari mundutik kanpoko mugimenduak ber ontzian elkarrekin aritzea garrantzitsua izan da. Eta jadanik erranaren ildotik, gure ekintzaren helburua laborantza herrikoia garatzea eta sustatzea zen, hots, laborantza iraunkorra; gaur egun agroekologia herrikoia deitzen dena. Erakunde publikorik ezin ginuen sortu, sortu berri ginuen elkarte erakunde publiko gisa, hau da, egiazko Laborantza Ganbara bat bezala kontsideratua izatea nahi ginuen.

Borroka hori eraman dugu eta irabazi dugu zeren suertez, Departamenduko Laborantza Ganbera ez da biziki abila, gure kontra aritu da, Prefetarekin batuz, parte zibil gisa plantatuz, etab. Hori guzia ez da ongi hartua izan laborariengadik.

Gaur egun, 15 urte dituen egitura gara. Garrantzitsua den egitura bat gara, balio duena: jendearentzat, eta hori ez diot nik, bi Laborantza Ganbara badira, bata departamendukoa eta bestea Ipar Euskal Herrikoa.

Hala da bai, estatutu desberdinak ditugu baina horrek ez du ezer aldatzen, Departamenduko Ganberaren onspen guziak baditugu energia, ingurumena, klima diagnostikoentzat, gazteen instalatzearentzat, normetan ezartzearentzat, etab. Dena badugu!

Beti bi mailatan lan egiten dugu: batetik, laborariei zerbitzu bat emten diegu, adibidez PAC edo laborantzarako politika bateratuaren dozierrak betetzen laguntzea, etab., egia erran ez dena gauza biziki politikoa. Baina garrantzitsua delako egiten dugu. Laborari batzuk engainatuak direlako ez dakitelako dosierrak nola bete, hori biziki konplikatu delako. Ez da laborariak zozoak direlako, baina prozedura biziki korapilatsua delako. PACa labirinto bat da, biziki konplexua, eta horregatik laguntza segurtatu behar da.

Beraz, alde batetik zerbitzua segurtatzen dugu, zerbitzu juridikoa barne, baina erakunde hau sortu ginuen laborantza motaren eramateko oinarrizko zerbitu ere segurtatzen dugu. Laborantza mota honen ezaugarriak uraren eta energia, ongarri eta materialen aldetik aurrezleagoak diren ekoizpen

jendea polo jakin batera joatera pusatzen dutenak nahiz eta haien interesa ez den bertan. Eta gero dimentsio teknikoa bada, erakargarritasun teknikoa: kontrako sistemak bere erakargarritasuna jokatzeko du teknologia berrietan, robotizazioan, adimen artifizialean, etab. Gogoia emateko hainbat tresna garatzen du. Beraz, medio teknikoak garatu behar ditugu ere, ez maila berean, baina gogoia emateko balio dutenak ere. Erakutsi behar dugu lantzen ari giren sistemak autonomia, plazera, asebetetze gehiago ekartzen duela gauzen kontrol gehiago dugulako. Beraz, elementu eta ekoizpen sistema zehatzak garatu behar ditugu etxaldeetan, eta hori guziaz erakutsi behar dugu. Ezin dugu sobera langileren beharra galdegiten duen sistema batzuren alde aritu, etab.

*Galdera:* Hasteko, harritua naiz egitea lortu duzuenaren aitzinean, Sistemari eta Estatuari sekulako trufa keinua egin diezue. Zonbat zinezten ekimen honen hasieran, zonbat lan egin diezue, eta orain zonbat langile dituzue egituran?

*Mixel Berhocoirigoin:* Hasieran 40 edo 50 lagun ginen, sortu ginituen elkarteetan ere bazen jendea: laborari ekoizleak, laborari biologikoak, etab. Laborariak ez zirenak ere baziren. Gero, egitura sortu denean, konplikatua goa zen, egitura berriak ibilarazi behar zirelako. Bazen ELB, ELBren alaba den Laborantza Ganbara, baina ez duzu ama hil behar alabaren laguntzeko. Beharrezkoa zen beraz indarrak banatzea, ELBren alde lanean segitzea, honen biziarazteko, eta jendeak egitura berriak biziaraz zezan ere.

Egitura berri honetan engaiatu ginen pertsonak guttiago aritu gara ELBn, nahiz eta ahal den neurrian harentzat lan egiten segitu dugun batzorde batzuetan parte hartuz. Baina hau ELB motorraren pistoi batzuren kentzearen parekoa zen beste motorra ibilarazteko. Doi bat konplikatua izan da, hasiera batean ELB ahuldua zelako sentazioa baitzen, egitura berria ibilarazteko beharrezkoetatik. Garai pixka bat zaila izan da, baina, ondotik, ELB berriz partitu da.

Hori gertatzen da egitura berriak sortzen ditugun aldi oro. Geroztik egitura berezi bat sortu dugu gazteak instalatzen laguntzeko, inkubagailuak eta

kontrolatzen duenean, finantza da boterea duena. Ezin dugu ekonomia joaten utzi eta erabaki nahi dugula erran edo gure hitza ekartzeko xedea ukan: kasu honetan, ez dugu gure hitzik ekartzerik.

Azken hitza, errateko ez girela gutaz sobera kexu, gaur egun, Ipar Euskal Herriko gazteen erdia instalatzen dugu, eta hori oraino garrantzitsua da. Sekulan ez dugu komunikazio kanpaina handirik egin baina bi gaztetik bat gutarik pasatzen da finkatzeko. Horien artean, bi heren segida hartuko den etxaldekoekin familia harremanik ez dutenak, hots, laborari izan nahi duten neska edo mutilak, etxalderik ez dutenak, laborari seme edo alabak ez direnak baina hona etortzen direnak errateko laborari izateko gogoia dutela.

## **BORROKAK SEGITZEN DU**

Horrek erran nahi du erreferente girela, ez bakarrik ezagutuak, baizik eta aitortuak, eta segitu nahi dugula. Badakizue laborantzan beste toki batzuetan bezala kontrako indarrak badirela, zalantzarik gabe. Interesak badira, elikagaien industria, bankuak, laborantza industrialak, intentsiboa. Hau hemen baino askoz indartsuagoa da beste leku batzuetan baina hemen ere badugu. Eskematikoki, Euskal Herriko laborarien % 10 eta 15 artean eskema ultra-intentsiboetan, ultra-industrialean dira, eta laborarien % 10 eta 15 artean bikaintasun eskeman, % 200 biologikoan, zirkuitu laburrean, etab. Gure ustez, laborarien % 70 gutienez bien artean dira; eta % 70 horiek dira interesatzen zaizkigunak. Ez gira heldu direnen Laborantza Ganbara, haiek antolatzen segitu behar dute, tresnaz hornitzen, komunikatzen, jendarteratzen. Eta borroka irabaziko edo galduko dugun gunea, % 70 horietan da, zeren ez badiegu eboluziorik, alternatibarik, mediorik proposatzen gune jasangarrirantz joateko, gainerako indarrak martxan dira, industria gune intentsiborantz azken hauen erakartzeko.

Bi poloen erakargarritasun elementuak ondokoak dira. Alde batetik, elementu ideologiko bat: "Ni naiz hoberena, ni naiz ederrena, etab." Balore sistemak badira, batzuk produktibismoaren alde dira, balore sistema bat da. Horren arrazoina ez ulertzea ulergarri da, baina badira elementu ideologikoak

edo baita ohorezko hesiarekin ere Laborantza Ganbararen auzitik gauza asko kopiatu ginituen... eredu bezala hartu zaituztegu). Ulertu dudanaren arabera, auziaren inguruko mobilizazio guzi horrek ez du bakarrik balio izan Estatuaren erasoaren aitzinean proiektua defendatzeko baina proiektua bera indartzeko bere oihartzuna zabaltzeko ere balio izan du, ulergarriagoa, entzungarriagoa bilakatuz, ikusiz zuhaurk erraten zinuela laborarien multzotik at egokia zen proiektu bat izan behar zuela. Hona ene galdera: aurreikusi ote zinuten hori? Zeren proiektu hori, pentsatua izan zen moduari begira, alternatiben proiektu bat zen desobedientzia zibileko desmartxa baten bidez gauzatuko zena eta aitzinetik pentsatzen ahal zen mota horretako gatazka bat ahalbidetuko zuela. Ba al zen, beraz, aitzinetik desobedientzia zibileko desmartxa horrek gatazka mota hori sortuko zuen eta proiektua indartuko zuen pariorik egina?

*Mixel Berhocoirigoin:* Ordutik goiti iraganen ziren gertakizunen filma ez ginuen nahitaez aitzinetik ikusi, baina argiki sumatzen ginuen neurritz aldatzen ari ginela, bertze estrategia batean sartzen ginela, Estatuaren kontra ari ginela, horretaz argi ohartzen ginen. Oroitzen naiz Ganbara egituratzeko Biltzar Nagusian, prefetak jadanik erran zuelarik zigorrak izanen zirela bururaino joan nahi bagenu, Ganbararen sorrera sekulako eguna izan zela, animaleko jendetza, mezuak etab., baina hori baino lehen esparruz aldatzen ari ginela baginakien. Estatuak ganbara ezartzen ez balu, guk ezarriko ginuela adierazi ginuenetik, baginakien ardura berri batean ginela, enkanteak igo ginituela eta ez ginuela akats-eskubiderik.

Batzuk erraten dute armadaren lema munizioak ditugula sinetsarazteko tiro egiten jarraitzea dela. Ez ginen erronka hori botako ginuelakoan, bertze urtebetez oxigenoa emanen ligukeelako, eta gero ikusiko ginukeela! Ez ginen eskema horretan. Eztabaida anitz izan ziren, zalantza anitz ere bai, eta hori BN batekin formalizatu ginuen. Zer etorriko zen jakin gabe, une hartan borroka mota aldatzen zela, eremua aldatzen zela sentitzen zen, elementu sinbolikoz aldatzen zela, dimentsioz aldatzen zela. Baginakien momentu hartan arrakasta izan behar ginuela. Ez ginen borroka baten luzapenetan, arrakasta izan behar ginuen, arrakasta izan behar ginuen fasean sartuak ginen.



beste. Beharrei erantzuten dion egitura bat sortzen dugun aldi guzietan, zatitzen diren zelulen itxura hartzen du, horiek jadanik engaiatuak diren jende batzuek sortzen baitituzte. Badu alde baikor bat zeren egitura berri bat sortzen dugun aldi oro jende berri batzuek proiektuarekin bat egiten baitute eta kidetzen baitira. Beraz, orokorkiago, lehenik bazen egitura bakar bat eta ondotik lau izan dira. Horrek ez du erran nahi hasierako militanteak lau multzotan zatitu direla egitura bakoitza osatzeko, baina ez du erran nahi ere hasierako taldeari begira lau aldiz bidertu denik.

Orokorrean gehiago gira, baina egitura gehiago ibilarazi behar ditugu, eta onartu behar da egitura bakoitzean laguntzaileen aldetik doi bat tinki girela. Baina, mementoko lortzen dugu aski jende izatea egitura bakoitzaren ibilarazteko, aitzinarazteko eta egin behar den lana aitzinatzeko, eta, hori zinez zaindu behar da. Baina hori ez da eriak klaskatuz egiten, desafio bat baita. Adibidez Ipar Euskal Herri mailan Terre de Liens gisakoa den Lurzaindia sortu dugu, eta Lurzaindia ez da bakarrik ibiltzen: jende berri bat hurbildu da lurraren gaia eta lurra hazkurri-emaile ideia biziki interesatzen baitzitzaie, baina horrek ere hartu dizkigu gure egituretan ari ziren jende batzuk. Azken horiek egituretan egiten zuten lana apaldu dute egitura berria funtzionarazi behar baitzen. Baina, nik uste ez garen bakarrak horri aurre egin behar diogunak.

Langile kopuruari dagokionez: lan ahalmenaren aldetik egoera onean gira, hogoi langilerekin eta milioi bat euroko aitzinkontuarekin. Aitzinkontu horretan 180 000 euro, pertsonak edo enpresa batzuek egiten dizkiguten dohaintzei esker lortzen ditugu, eta hori ezinbestekoa da, zeren 180 000 euroekin 5 edo 6 langileren postuak ordaintzen ditugu; hau da, dirutza hori gabe, bost lan-sail arindu beharko genituzkeela. Lazgarria izanen zen ekintza batzuk bertan behera uztera behartuak izatea.

*Galdera:* Biziki fite aipatu duzu auzien garaia, baina mobilizazio herrikoi fase oso bat izan da komunikazio kanpaina batekin, sustenguak lortzeko lan batekin, elkarretaratzeekin, manifestaldiekin (aulki bahitzaileen auzia antolatu ginuelarik, eta ondotik potreten bahitzaileena, eszenografiarekin

“Ez dakit gaur hainbeste jende izanen zenetz ez balitz epaiketarik izan, epaiketen garaian eginiko lan guzia eta hedatutako mezu guziak ez baziren izan”. Uste dut, dudarik gabe, arrazoi zuela.

Hala ere, sortu dugun egiturak aldi berean gauza konkrituak ekoiztu behar ditu; ezin da luzaz bizi erranez: “Estatuarekin borrokan gira, sustengua behar dugu, alternatiba gira, zapalduak gira eta abar”. Horrek bulta bat irauten du, baina ezin da luzaz horrela bizi, ezin da urteak horrela bizi. Jendeak lagundu behar baldin bagaitu, ganbara hau sustengatu behar badu, atxikimendu ideologiko, militante eta haratago, memento batean, egiaren tenorea heldu da eta jendeak galdetzen du: “Zer sortzen du, azken finean, erakunde honek? Espero zena egiten ote du? Egoera kanbiatzen ote du? Aldatzeko tresna dea ala ez?”. Laster galdera hau egin genion gure buruari eta hauxe pentsatu ginuen: “Pasatzen den egun oro gure alde izan behar da, eta ez bakarrik mobilizazio kanpainan; egun bakoitzean, ekoizten duguna gure sakelara sartu behar da, jendeak beharrezkotzat jo behar du, baliagarritzat”. Gure lorpenak ikustean jendeak pentsatu behar zuen: “Beharrik hor dira!”. Hasieratik, ganbara hau beharrezkoa zela erakusteko kezka ukan ginuen.

Beste elementua: ganbararen egitasmoa onartzen duen jendearen artean, maila ezberdinetako motibazioak badira. Borroka, aniztasun horrekin eramaten dugu. Nik beti diot, beste aldietan egiaztatu dudalako, borroka baten irabazteko, ez da nahi ukan behar borroka sustengatzen duten guziek arrazoi berengatik egitea. Arrazoi desberdinak gerta daitezke, memento batean, jendea borroka baten alde biltzeko, xede desberdinak dituztelarik, baina etortzen dira. Gero bateratze hori eraiki behar duzu, bateratze hori koherentzia bihurtzeko gisan. Adibidez, laborari batzuek gure ganbara sustengatzen zuten Ainiza Monjolose Paue baino hurbilago baitzen! Ikuspuntu hori ere errespetatu behar da, gogoan hartu behar da. Beste batzuek, laborantza jasangarriagoa, etxekoa egiten ginuelako eta hori errealitate bihurtzen lagunduko ginuelako, etab. Bistan da, hori baitzen gure egitasmoaren funtsa, baina denak ez ziren horretan. Beste batzuk gure alde ziren Prefeta “kakinarazten” baikinuen; beste batzuk kalitatezko produktuak sustatu nahi ginituelako. Onartu behar da motibazio aniztasun hori; baina

Ainitz harritu gintuena zen askoz lehenago erreakzioak izanen zirela uste ginuela. Prefetak 8 egun lehenago erreakzionatu zuen, hedabideek jakinarazi zutenean ELAk lokala guretzat erosten zuela eta lokalaren argazkiak argitaratu zituztenean. Are gehiago, uste dut ez Prefetak, ez RGek, ez departamenduko Ganberak ez zutela sinetsi ekintzetara pasako ginenik. Uste zuten bakarrik komunikatzen ari ginela, espantuka ari ginela; orduan ikusi zuten fisikoki lokala han zela, eta ikusi zuten estrenarako gomitak igorriak zirela, eta, bereziki, gure solaskidea zen Baionako Suprefetari, nahiz eta gai anitzi buruz ez ginen ados harekin, orduan erantzun zuen Prefetak. Uste dut ordura arte ez gintuztela serioski hartu, uste zuten ez ginela gai; bertzela ezin da ulertu; lehenago erreakzionatuko zutela igurikatzen ginuen. Momentu hartan eskalaz aldatzen ginela sumatzen ginuen, ez ginen ez batuketan, ez biderketan, berresketan ginen, ez zen 10+10, 10 ber 10 zen. Azalpen lan handia egin ginuen, irabazi behar ginuela eta zergatik irabazi behar ginuen azaltzeko. Denbora gehiegi pasatu dut, segur aitzineko guzia azalduz, baina ekintza bat une jakin batean ikusgarri bihurtzen da, eta lehen gertatu den guziari esker noizbait arrakasta lortzen du.

Inoiz ez da espontaneo, denbora behar da. Uste dut pedagogia handia egin dugula eta frango onak izan girela “ekintza sendoak/pedagogia” osagarritasun horretan. Prefetak ortziral arrats batez faxez erran zidalarik prozesu penalak hasiko zituela bururaino joanen bagina, ondoko astelehenean prentsaurrekoa egin ginuen ELBrekin eta Ipar Euskal Herriko Auzapezen Elkartearekin, Prefetak zer bidali zigun errateko eta gure urraspidea berriz azaltzeko; eta hori laborantzaren auzitik haratago joaten zen. Ezin da mugimendu bat umiliatu, ezin da gutietsi, kontuan hartu behar da, ez zen laborantza kontua soilik.

Gero, eragin handia ukan zuten epaiketak iragan ziren; han zinez mugimendu sozial bat bazen; eta joan den larunbatean 15. urteburua ospatu ginuen, beti jende askorekin, giro biziki ona, indar bat senditzen ginuen. Egun hartan, laboraria ez den pertsona batek baina epaiketetan eta kanpainen anitz inplikatu zenak erran zidan:



gero bateratzea emeki emeki koherentzia eta atxikimendua bilakatu behar da.

Gaur egun ere denak ez zaizkigu arrazoi berengatik etortzen. Baina denbora joan ahala, eta handitzen ari den elkarrekilako ezaugarri bat dago. Fenomeno hau Euskal Herriko Departamendu baten aldeko borrokan ikusi nuen (ez dut Euskal Departamendua erraten): batzuek Euskal Herriko Departamendua aldarrikatzen zuten, beren begietan Euskal Herriaren independentziarako lehen urratsa irudikatzen zuelako, beste batzuk Frantziako Estatuaren presentzia hurbilagoa ikusten zutelako prefet batekin Baionan, eta horrela Estatuak lurraldeari arreta handiagoa emanen ziola. Ezin diogu erran bati edo besteari tronpatzen dela. Asko sinesten dut horretan: elkarrekin urrats bat egiten badugu, gure motibazioak desberdinak izanik ere, elkarrekin urrats bat egin dugu, eta orduan asma dezakegu bigarren urratsa lehenago ezinezkoa iruditzen zitzaiguna. Nik dinamika honetan sinesten dut.



## 02

### **DONIBANE GARAZI, 2017**

#### **IKUSI, AZTERTU, EKIN**

Laburbiltzeko, 1952an sortu naiz, eta 70 hamarkadaren hastapenean, 18 urtetan guti gorabehera beraz (garai hartan 18 urtetan adinpekoak ginen oraindik, adin nagusitasuna 21 urtetan baitzen, testuinguruan berriz kokatzeko) – naiz, ordu arte, eta telebistaren bitartez edo nik dakita nondik, nituen interes guneeetatik kanpo ziren gauza batzuei interesatzen hasi. Nire lehen gunea, engaiamendu gunea nolapait errateko, JAC izan da, Gazteria Laborari Girstinoa, MRJC, Baserri Guneko Gazteria Girstionoaren Mugimenduaren laborari munduko adarra, hemen Euskaldun Gazteria. Apezek proposatu eskaintza zen baina historia luzea ukan duen Elizako mugimendu soziala zen. Historia batean kokatzen ginen: 1929an sortu da JAC eta historikoki baserri guneko eragile nagusia izan da, militanteak laborantzako arduradunak eta usu laborantza munduko eta baserri munduko jaunttoak izateko formatu baititu. Eremuan ikusgarria zen guzia, orokorki, JAC-etik pasatua zen, gure eskualdean bederen -beste eskualde batzuk komunista lurak baitziren gehiago. Ni, JAC-en hasi naiz arreta pizten zidaten gai batzuei interesatzen.



publiko batera buruzko biderik ireki. Eta eginkizun publiko bat ez duela pentsatzen duen talde batek, erran nahi baita iduritzen zaiolarik gauzak bera hor ez balitz bezala iragaiten direla, ez du deusetarako balio; bera izan ala ez izan, ez du neholako eraginik gauzak iragaiteko moldean, jendeek pentsatzen dutenaregan, indar harreman arloan, etab... taldea ohartzen baldin bada neholako eraginik ez duela gauza publikoari, pentsatzeko moldeari, indar harremani dagokienez... Gelditzen da, abortatzen du. Beraz taldeak baliagarria dela sentitu behar du, gauzak egiten dituelaren inpresioa, sentimendua, segurtamena ukan behar du, eta gauzatzen duenak balio duela, gauzak ez direla bera hor ez balitz bezala ez direla pasatzen. Eta horrek, kemena ematen du izaera bat ukaiten segitzeko, baitakigu eragin bat badugula gauzak iragaiteko moldean.

Errepikatzen dut eta ez diot Bizi!-ri hau erran behar, baina usu erran dut, geroztik ere JAC-eko talde batzuei besteak beste eta hurbil ditugun sindikatuetakoko talde batzuei, bai eta ELB-koei ere. Ez badugu izaera publikorik, lanjerrean gira. Pentsatzen dut puntu hau garrantzitsua dela. Orduan, bizia, arlo guzietan, oreka eta neurtze afera bat dela: existitzea baldin badugu helburu bakarra, gerta daiteke ere gehiago ez existitzea. Edozoin arlotan, edo hartu bidea nolana hikoia izanik ere, beti gailur lerro batean gira, beti. Horretaz ongi jabetu behar da, nik usu buruan ukan dut. Ez du erran nahi jarrera zentrista batekin gabiltzala, baina beti oreka afera bat da, horrela gira menturaz pixka bat aitzinatzen ahal. (...)

## **ERRADIKALTASUNA**

Gertatu da sarrarazi nautela nazio mailako ardura batzuetan gure esperientzia interesgarritzat hartzen zutelako Laborari Langileek, gure helburuetan eta gure eginmoldeetan, militante erradikalak izanik ere oinarri bat bagenuelako aldi berean. Ez ginen besteetaz berexiak, jendeekin ginen.

Egitasmoen erradikaltasuna ez da hainbeste hauen eramateko moldean baina bai haien izaeran. Erradikaltasuna egon daiteke egitasmoetan eta helburuetan, eta erradikaltasun hau biziki ongi har eta uler dezakete jendeek haiek errespetatuz eraman egin molde bat, estrategia bati jarraitzen bazaie.

Usu, militanteen eta "oinarriaren" (ez dut izendatze hau biziki gustukoa)



JAC-en bazen, hemen duzuen “ikusi, aztertu, ekin” bezalako formakuntza guzien oinarrian, beste hitz batzuekin bazen ere, seguru aski, zen pedagogia biziki emankorra. Ikusi, aztertu, ekin behar zen, biziki sinple da. Oinarrizko ezagutza zen, pedagogia, gogoeta, ekintza guzien iturria.

(...) Laborari munduaren bi egitura nagusiak garai hartan, JAC eta laborantza sindikalismoa ziren, eta gauza batzuk egin nahi zituztenen ibilbide klasikoak ziren JAC eta, ondotik, laborantza sindikalismoa.

Eta gertatu da 68ko maiatzak denak inarrosi dituela, bai indibidulaki baina baita mugimendu guzietan ere. Baserri gunea barne, eta bereziki mundu horretako mundua eta pentsamenduaren bi zutabe nagusiak, JAC eta laborantza sindikalismoa. (...)

Eta errepikatzen dut, nire bizitzaren eskola izan da JAC. Dudarik gabe nire nortasunaren zati bat da, orain, orduan halako pentsatzeko molde bat ematen dit... Halako ezpiritualtasun bat batzuek erranen dutenez, baina ez erlazio ikuspegitik bortxaz, bakoitzak bere biziari eman nahi dion ikuspegia da; eta penstatzen dut gogoeta material bat bakarrik ez zen JAC-en historia hau, pentsatzen nuenaren, nire pentsamoldearen funtsezko osagaietakoa izan dela, eta seguru aski berantago ere; eta gaur egun ere behar bada.

## **IZAERA PUBLIKO BAT UKAN**

JAC-en mailan lan egin dugu beraz, taldeak moldatu ditugu, gogoetatzen ikasi, taldean gogoetatzen ikasi, taldean mintzatzen ikasi, eta gehienik publikoki izaera bat ukaiten ikasi dugu.

Hau da beste elementu garrantzitsu bat – ez dut hau Bizi!-n erraterik- baina izaera bat dugu bakarrik izaera politiko bat ukan badugu noizbait. Orduan ez da ekintza, bakarrik ekintzarako bilatu behar – badakit ez dudala deus nehoi salatzen hemen- baina usu honen aldeko adierazpenak egin ditut; talde batzuk ezagutu ditut, JAC-en barne, edo beste talde batzuetan berantago, aterabiderik atzeman ez dutenak, bide pixka bat egin dutenak, pixka bat lan egin dutenak eta alfer bizi izan direnak, eta beraien baitan hetsitu direnak, ez baitute presentzia publiko batera, ekintza publiko batera, eskuhartze

gelditu diren guziak ez dira hala gertatu besteak baino handi-nahiagoak edo arribistagoak zirelako, baina bai, tokian bereko erreferentziarik ez izanki, beste atrakzio iturri batzuen eraginez, beste orbita batzuetara eramanak izan direlako. Gure ideietatik biziki hurbil eta gure lagun handiak diren hautetsi batzuen kasua da adibidez. Ardurak hartu dituzten orduko eta haien bidea munduko intentzio eta borondate on handienarekin segitu dutenetik, lokarria eta hastapenean ondoan zituzten jendeekin engaiatzera eramanean zituzten arrazoinen egiaztatzekeo arrangura galdu dute. Biziki fite errealitytetik moztuak izan dira.

Nork berak bere buruaz mesfidatu behar du beti, bakarrik baldin bagira arrazoin dugunez egiaztatzen, engainatzen girelako, engainatzen ez girela iruditzen zaigularik. Pentsatzen dut historikoki gure burua idenfikatu dugun hastapeneko taldearen erreferentzia etengabe beharrezkoa dela eta, nolana ere, zernahi eginik ere, gauzak edozoin moldez ikusirik ere, taldeak beti arrazoin duela norbanakoaren aitzinean. Gugandik hurbil ziren jende batzuk urrundu dira horrela eta arerioak edo etsaiak bezala hartu izan ditugula ororen buru, halako asmoetan ez zirenean. Atrakzio desberdinen ondorioz gertatzen da; gure hizkuntza propioak ditugu, gure kodigo propioak, gure eragin propioak, gure atrakzio propioak, gure logika propioak, baina beste hainbeste badira beste leketan ere. Planeten artean bezala da: gure planetaren atraktibitatea galtzen baldin badugu, beste planetek eramaten gaituzte eta biziki urrun joan gaitezke horrela. Botereen galaxia gure galaxia bezain handia da. Jende anitz, laborarien munduan barne, galdu ditugu horrela, lan ona egin zutela sinesten dutelarik, eta seguru aski gauza interesgarriak egin dituzte.

## **NONBAITEKOA IZAN DIMENTSIO UNIBERTSALAREKIN**

(...) Berriz itzultzen naiz gailur lerro irudira. Elkar erakartzen duten edo kontrajarriak diren hainbat indarren arteko bidea atzeman behar da. Hau egia da norbanakoaren mailan, maila kolektiboan bezala. Usu azaltzen diet Euskal Herriaz deus ez dakiten jende batzuei. Hasi behar zaie azaltzen Euskal Herria zer den guretzat, zergatik interesa pizten digun. Hastapen batean, horrela irudikatzen dut eta erranmolde batzuek berresten dute,

haustura formarengatik gertatzen da funtsarengatik baino gehiago. Ez da normala indarrean diren funtsezko egitasmo hain txarrak, hain inegalitarioak, hain menperatzaileak onar ditzaten jendeek haien interesen aurka joaten direlarik. Egitasmo horiek onartzen dituzte jendeek “saldu ondoko zerbitzua”, komunikazio kanalak eta egitasmoa saltzeko moldeak egitasmoa ona dela sinestarazten dutelako. Gure kasuan aldiz, batzuetan, egitasmoa aurkezteko moldeak hau txarra dela erakusten du, egitasmoa ona delarik. Hau ez da sinplea, estrategien eztabaida da erabat. Baina jendeak ez dira masokistak ere, ez dira haien interesaren kontra doazen jendartearen antolatzekeo sistemen alde, sozial edo ekonomia arloko sistemen alde, ez dute hori nahi.

ELB-rekin eztabaida honekin ekarri duguna izan da jakin izan dugula egitasmoaren erradikaltasun bat ekartzen, aldarrikapen batzuk eta batzuetan ere ekintzak, jendeen adostasunarekin, ahate hazkuntzaren inguruko azken aktualitatean barne. Sistema batekin hausturan gaude hor eta alta, oinarriaren mailan, ongi pasatzen da, halako adostasun bat sortzen da. Jadanik aipatu dudan gailur lerro horren beste osagai bat da hau. Kontrajarriak diren bi magalen junta da gailur lerroa. Obsesio hau eduki behar dugu, ene iduriko: kontrajartzeko joera duten bi magalen adostasuna piztu behar dugu, hastapen batean egitasmo hau geheingo batek partekatuko ez duela pentsatzen bada ere, eta hau usu bazterreko arrazoi batzuegatik eta ez egitasmoari berari lotu funtsezko arrazoin batzuegatik. Pentsatzen dut, ELB-k, bere gorabehera guziekin ere, beti izan duela, guti edo aski, bi magalen adostasun hori ahalbidetzeko nahikeria. (...)

## **TOKIKOA ETA OROKORRAREN ARTEKO GAILUR LERROA**

Beti ari nintzen zirkuluaren koadraturak egiten: nazio mailako ardura banuen (Confédération Paysanne-ko nazio mailako arduraduna izan da lau urtez Mixel, astean lau egun Parsien ibiliz orduan) eta, aldi berean, tokiko ardura bat atxiki nuen sindikatuan, nire iduriko nazio mailan ardurak ukaitea tokiko loturarik atxiki gabe, jokoaz kanpo egotea eramaten gaituelako.

Horri kasu handia egin behar da, tokiko lotura finko bat ukaitera behartu behar dugu gure burua eta tokiko kideei konduak ematera ere. Jokoaz kanpo

horrat. Parean direlarik dira ileak saldan erortzen. Parean nintzen behar bada?

Pentsatzen dut ez dela bide aitzin finkaturik hastapenean. Kasik erran dezaket bideak gaituela goazen lekura eramaten. Guk dugu bidea egiten, baina egintzek gaituzte gidatzen. Ez dugu dena aitzinetik pentsatu, nik bederen. Batzuek dena aitzinetik planifikatzen dute, aitzinetik badakite gauzak nola gertatuko diren baina ez guk. Ez dakit zenbat aldiz azaldu diegun gure prefeta guzietan eta ministeriotik haratago ere: ELB sortu dugularik, ez ginuen EHLG-ren sortzea programatu. Bost urte lehenago, ez ginuen programatu, ez ginen hain azkarrak. Erraten ziguten: "ELB-k gehiengoa duelako duzue Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortzen". Erantzun diegu ez ginela aski azkarrak 2001ean berean goraki errateko EHLG 2005ean sortuko ginuela. Guk egindakoa eta parekoek egin dutenaren emaitza da bizi izan dugun historia. Badakit EHLG-ren sortzearen egunean, 2005eko urtarrilaren 15ean, publikoki erran nuela Paueko Laborantza Ganbarak zuela EHLG sortu. Haien jarrerak, haien barkagogortasunak, haien mespretxuak dituzte guretzat biziezinak ziren baldintzak sortu eta EHLG-ren sortzea justifikatzen zuen testuingurua justifikatu.

Ez ditugu nehoiz erabakitzen ditugun gauzak aitzinetik bizitzen, ibilbideak bizitzen ditugu. Gure zerumuga badugu baina hemendik ala hortik iragaiten ote da? Biziki desberdina da zerumuga bat edo iparrorratz bat, eta bideko karta bat ukaitea! Elementu fisikoen arabera, mendien arabera, ibaien arabera egina da bideko karta, eta gure bideak ere berdin eginak dira. Ez dira zuzenak, eta horrek du ere bizitzen ditugun gauzen indarra eta interesa osatzen. Pentsatzen dut gauza bera dela gutariko bakoitzarentzat.

**Galdera:** ELB sortu duzuelarik, ez ote duzue eztabaida hori ukan? 1981-1982 urteak ziren, garai biziki dinamikoa abertzaleentzat. Ez ziren zuen artean abertzale sindikatutzat definitu nahi zuten batzuk?

**Mixel Berhocoirigoin:** Eztabaida hau ukan ginuen. Jadanik hau abertzale hitzaren gibelean ematen dugun definizioaren arabera da. Badira, nire iritziz, definizio biziki desberdinak. Ez dugu mahai ingururik egin jakiteko zer erran nahi zuen abertzale izateak bakoitzarentzat.

lokalismoa egiten duten jendeak bezala hartzen gaituzte, bakarrik haien herriari interesatzen direnak, mundua urrunago ikusten ez dutenak. Orduan azaldu behar zaie ez girela horrelakoak bakarrik. Azaltzen dut, kolektiboki ere, nazio kidetasun sentipena, nortasunaren gaia, ez direla tabuak, onartzen ditugula.

Hemen ere bi mutur badira: gauzak hor gertatzen direlakoan tokikoari besterik ez bagira interesatzen, bere horretan mugatzen den halako nazionalismo batean murgildurik gaude. Alderantziz, beste gainerateko guzia atzerakoia eta lanjerosa dela kontsideratuz mutur unibertsalean kokatzen bagira bakarrik, joko kanpoko unibertsala egiten dugu. Batek lokalismoa eta nazionalismo lanjerosa sortzen du eta arrisku berdinak dakartzan joko kanpo egotea besteak.

Nonbaitekoak gira dimentsio unibertsalarekin beraz. ELB-rekin erraten ginuena eta egiaztatzen dena atzematen dugu: "Laborariak gira, Euskal Herrian, eta nazioarteko komunitatearen kide ere". Dimentsio unibertsala hori balio unibertsalei lotuak girela aldarrikatuz asumitzen dugun puntutik, ez du neholako arriskurik ekartzen tokiko lotura atxikitzeak. Unibertsalitatek ez izateak du arriskua sortzen. Baina unibertsalitatea baizik ez baldin bada eta gaineratiko guzia bigarren mailan gelditzen bada ikuspegi politikotik, orduan gira joko kanpo gelditzen, biziki onak gira baina beste nonbait. Norbanakoaren bizia eta bizi kolektiboa beti horrela dabilta.

Nazional mailan, aski luzaz ardurak ukan ditut. Confédération Paysanneko idazkari nazionala egon naiz lau urtez eta ondotik ardurak ukan ditut zenbait arlotan: PAC-a, esnea, bidezko laborantza, etab...

Tokiko mailan, abertzaletzat jotzen dut nire burua, herri hau eraikitzen lagundu nahi dudana neurrian eta laborantza arloko militantismotik abiatuz gauzatzen dut. Niretzat, politika egiteko molde eraginkorrena izan da sindikalista gisa aritzea. Ez dut baitezpada bide onena dela erraten, baina niretzat hala izan da. (...)

## **BIDEKO KARTA ETA IPARRORRATZA**

Desarmeari lotua da nire ibilbidearen azken fasea, seguru aski ezagutzen duzuen bake prozesuari. Saldaren barnera erori ile baten gisara etorri naiz



Hastapeneko taldean, indarra pixka bat erabiliz, abertzale sindikatu gisa agertzen ahal ginen. Baina taldeko batzuek ez zuten haien burua abertzale bezala definitzen eta alta hor ziren bururaino proiektuan. Erabaki dugu beraz ez genuela abertzale gisara agertu behar eta, Bizi !-ren kasuan bezala, pertsona batzuk ez dira ELB-tik hurbildu, gure burua ez ginuelako abertzale sindikatu bezala agertzen.

Pertsona horiendako, abertzale neurria garrantzitsuagoa zen defenditzen ginuen laborantza motaren neurria baino, ELB-ren aburuz, berriz, proposatzen ginuen laborantza mota garrantzitsuagoa zen Euskal Herriaren eraikuntza lagunduko ginuela iruditzen zitzaigulako, gure laborantza ereduari esker, eta hau guk sortu nahi ginuen Euskal Herriaren osagaietako bat zela.

Beti ongi atera gira pentsatuz gure sarbidea sozial arlokoa zela lehenik, sozial arrazoinei jarraikiz zela lehenik jendea ELB-ra hurbiltzen. Adibidez, pertsona esnearen prezioengatik etortzen da eta ondotik gauza ainitz deskubritzen zuela. Horrela dira gauzak ibiltzen. Baina paketa osoa saltzen bazaio, bera produktu bakar baten erostera etorri baldin bada, ez da ibiliko.

Abertzale uhartea eta kontinentearen arteko zubia da ELB. Zubi horretatik abiatzen diren jendeek batzuetan zeharkatzen dute eta batzuetan gibel egiten dute. Eta zubi hau, mozten badugu, ez da gehiago! Ikastolen gisako zubi bat da. Ikastolako burasoei erraten bazaie abertzale izan behar dela haien haurrak ikastolan emateko, batzuek gibel egingen dute.

(...) Bere burua gisa horretara definituz, pentsatzen dut ELB-k gehiago ekartzen diola abertzaletasunari alderantzizkoak baino.

# 03

## **BIDARRAI, 2006**

### **BABES HESI KOLEKTIBOA**

Deitzen genuen 40en taldea sortu dugu. Beraz 40ren artean biltzen ginen, erregulariki, estrategiak erabakitzeko, alde batetik, eta, pundua egiteko, beste: zertan gira gure helburuei begira? Zer egin behar dugu? Nola? Zoin dira garatu beharreko borrokak? Etab.

Maila bikoitzeko funtzionamolde bati jarraitzen genion: egitura ofizialarena eta, barneari begira, informalago bat, estrategia hura erabaki ginuenen mailakoa. Ohartzen gira ezinbestekoa dela, molde orokorragoan ikusten baitugu ere. Politikan gauza bera da, egituretan, logika batzuetan intentzio biziki onekin sartzen ahal baikira, izpiritu oso buruargi, eginbidetsu eta leial batekin, baina gerta daiteke zenbait denboraren buruan, bistatik galtzea zertan garen egin dugun hautuari begira eta, bidea hautatzeko ordez, bideak gaituela gidatzen. Ez dakigu gehiago nora goazen. Eta hau, fede onenarekin. Ez da bakarrik delarik iparrorratza atxikitzen ahal duen militanterik. Ez baldin bada beraz beste tokirik bilana, azterketa egiteko eta gauzak erkatzeko, militante onena beste nonbait aurkitzen da: tiratua da, kolpez harrapatua beste logika batean. Egiazki, horrela gertatzen da. (...)





komeni, nonbait frogatu behar genuen egitura hauek ez zaizkigula komeni. Ez da aski erabakitzea ez zaigula komeni denek erran dezaten ez zaigula komeni. Frogatuz gero baizik ez du sinesten jendeak.

Muturreraino sartu gira beraz departamentuko Laborantza Ganbaran. Ginuen botere eskasarekin, bururaino erabili dugu. DDA/DLZ edo Departamenduko Laborantza Zuzendaritzako egiturak, batzorde mistoak, batzorde parekideak, etab., muturreraino sartu gira aginte guzi hauetan, ehun bat aldiz joan gira Pauera bilkuretan parte hartzeko, hitzorduetara, maxina muturreraino ibilarazi dugu. Gurea ez zen maxina hura, eta gurea izatea nahi ez ginuena ere.

Hau da arriskua beti, baina uste dut dinamikan fidatu behar dela. Gure ildoaz segur bagira, badakigu goiz ala berant, kontraerranaren agerpena gertatuko da. Gu inplikutzen giren egiturak, gure lanaren xedea ez den koadro zehatz batean eginak baitira. Egun batez, zapartatu behar da beraz, eta kontraerranaren agerpena gertatzen ez bada, erran nahi du ez dugula ongi lan egin. Baina, gure ildoan, gure lanean eta gure gaitasunean fidatzen bagira, egun batez, gauza horiek gertatu behar dira. Beraz, ez gira bortxaz beldur izan behar errateko “izorratuko gaituzte, koadroak, sistemak integratuko gaituztelako azkenean”... Bestearekin hautsi-mautsiak lortzen entseatu nahi ez baldin badugu, arriskurik hartu nahi ez baldin badugu, erran nahi du gure buruaz ez girela segur. Segurtasun askoz handiagoa ekartzen du arriskurik ez hartzeak, baina uste dut zinezko ahulezia dela. (...)

## **SINDIKATU LANA**

Pentsatzen dut sindikatu lan hori, orain arte bizi izan dugun bezala, beti orekan dela. Etengabe bi mailatan egon behar da. Zerumuga bati, utopia bati, proiektu politiko bati, dinamika bati, norabide bati, iparrorratz bati eutsi behar zaie. Eta biziki pragmatikoa izan behar da, gizarte laguntzailea. Politikoki, neholako balio politikorik ez duten gauzak egin behar dira.

Biak egin behar dira, sozial laguntza bakarrik egiten baldin bada, kide anitz hurbilaraziko ditugu baina ez du neholako ondorio politikorik. Eta zerumugan bakarrik baldin bagira, deskonektatuak gira. Oreka hau ez da

## DINAMIKAN FIDATU

ELB sortu dugu, eta erabaki dugu egitura hau Euskal Herriaren mailan sortzea. Gaur egun ez du deus erran nahi baina duela 23 urte, ez zen guti, Euskal Herriak ez zuen neholako izaerarik, gaur baino gutiago.

Gaur egun, usaitu gira Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluari, Euskal Herriko Garapen Kontseiluari... ohikoa bilakatu da Euskal Herriko egiturak ukaitea. Instituziorik ez dugu baina bai Euskal Herriko egiturak... Gaur militante batzuek departamentu mailako egiturak sortzen balituzte, anti abertzaletzat hartuko genituzke. Ez zen, garai hartan, Euskal Herri mailako egitura handirik. Orduan jarrera politiko batean sartzen ginen izaerarik ez zuen Euskal Herri horren mailako egitura bat sortzean.

CNSTP, Laborari Langileen Sindikatuen Konfederazio Nazionalean sartzea. Eztabaida bat izan da eta jende batzuek, gutik -40ekoen taldeko bat edo bi hala ere- ez gaituzte segitu haienez ez baitzen batere egokia frantses Estatuko egitura batean sartzea.

Hautu hau egin dugu hala ere bi arrazoinengatik. Lehenik erabaki politiko andana bat frantses Estatuaren mailan hartzen direlako, eta erabakiak hartzen diren lekuetan egon behar delako zerbait egin nahi baldin badugu sindikatu mailan. Bestenaz, karabanaren ondoan zaunkaka ari gira, bizikletaren ondoan gelditzen gira. Bestalde, beste militante batzuekin, beste sindikatu batzuekin, gure gisako arazoak dituzten beste eskualde batzuekin eta gure mundu berdinean bizi direnekin elkartzen garen lekua da. Beste talde eta beste eskualde batzuekin mugimendu berdineko partaide izatea da gehiago frantses egitura batean parte hartzea baino. Guk, sozial ikuspegitik eta antolakunde eta militante ikuspegitik ikusten ginuen hori guzia.

(...) Hastapenetik, Euskal Herriari berezkoak zaizkion egituren aldeko iritzia adierazi dugu. Zehaztu ditugun lehen elementuetakoak izan dira. Euskal Herriko egitura bereziak beharrezkoak ditugu, Laborantza Ganbara, administrazioa. Baina, hastapenetik, departamentuko egituretan lan egiteko eta osoki sartzeko hautua egin dugu hastapenetik. Hor ere, FNSEA-rekin gertatutakoa bezala zen. Zilegitzat hartzen ez genituen egituretan sartu ginen, baina arazoak bertan eztabaidatzen zirelako eta halabeharrez bertan konpontzen zirelako saihestezinak zirelakoan dugu hautu hori egin, bai eta gure sindikatu lanari irekidura bat ekarri behar geniolako. Ez bazitzaigun

pixka bat hartu behar da aukera eskaintzen baitu. Hau garrantzitsua da atseginaren heinean ordainduak baldin bagira, emaitzen bitartez bakarrik, ez gira beti ongi pagatuak. Gauzaz ordainarazi behar dugu ere gure burua. Elementu positibo ugari daude hala eta guziz ere. Nola neurtzen dugu egin dugunaren eraginkortasuna? Zaila! Emaitzaren arabera neurtzen dugu beti. Baina emaitza, finkatu genituen helburuen arabera neurtzen dugu. Badira bi motako helburu. Aldarrikapenari lotua den helburua, orduan hor, simple da, nahi genuena erdietsi dugu ala ez, erdia edo osoki... Aldarrikapenaren betetze tasaren arabera da kausitzea. Batzuetan ona da, batzuetan txarra. Eta badira aldarrikapen garbirik gabeko helburuak, eta politikoak diren beste batzuk ere: ideia bat aitzinaraztearena. Aldarrikapenak ideia bat aitzinarazteko oihartzun kaxak baitira batzuetan. Aldarrikapen bat garatzen ahal dugu jakinez ez dugula lortuko, baina ideia bat aitzinarazteko.

Orduan hau guzia azkenean sistema elikatzea dea? Honen aurka ote doa eta sistemak ongi digeritu du? Ez dakit baina uste dut biak izaten ahal direla. Sindikatu lan batek sistema elika dezake, baina badira aitzinetik biziki erradikalak diruditen ekintzak, sistema elikatzen ahal dutenak ere!

Sistemak borrokak digeritzen dituelarik eta hauetaz elikatzen delarik – borrokak erradikala iruditzen badu ere – sistemari onura dakarkio. Sistema laguntzea ez da bortxaz halako borroka mota bati lotua, uste dut iparrorrazaren norabideari lotua dela gehien bat. Iduritzen zait aldarrikapen kategorialak, korporatistak edo soldata portzentaiaren arlokoak baldin badira, sistemak digeritzen ahal dituela. Aldiz, eta hor da gure sindikatu ildoaren berezitasuna, korporatismoaren aurkakoak, produktibismoaren aurkakoak girelarik, zenbait garapen logika zalantzan ezartzen ditugularik, banaketaren aldekoak baldin bagira, ekoizteko eskubidearen partekatzeko, etab... aitzinetik, definizioz, jendeak lehertzen dituen ekonomia produktibista, intentsiboaren aurka doa. Beraz, haren kontra doan orok ez luke, logikoki, sistema azkartu behar. Pentsatzen dut lortzen ahal dugula ez zerbitzatzea edo haren zerbitzuko ibiltzen saihesteko ahalegin guziak egiten ahal ditugula. Borroken izaera da, eta horretaz arrunt jabetua naiz.

(...) Gaur, jakin badakigu sistemaren eragin kaltegarrien aurkako ihardukimendu forma batzuk haren probetxuko errekuperatzeko gai dela

beraz bortxaz agerikoa baina guk hautu hori egin dugu. Ez du baitezpada jende guziak hautu bera egin. Ezagutzen ditut beste sindikatu egitura batzuk, laguntza soziala beharrezkotzat jotzen ez dutenak. Haien hautua da.

Bi mailatan egon behar da ere formari dagokionez, estrategiari dagokionez bezain bat. Geldi-geldia gauzak azaltzen arituz, pedagogia eginez, 36000 aldiz gauza berdina errepikatuz. Eta ere ekintza eginez, ekintza zuzena. Hotza eta beroa aldizkatu behar dira, baina momentu onean. Biak egin behar dira. Hor ere, bat besterik ez badugu egiten, zerbait huts egiten dugu.

Hori ere oreka da. Ez da ikasgairik: ez a) ttipirik eta hori hiru hilabetez egin eta ondotik, b) ekintza bat burutu. Sentitzen dugun gisara da, gauzak ikusteko moldearen arabera, aztertzeke moldearen arabera. Zenbait aldiz, ondoan pasatzen gira, gauza batzuk huts egiten ditugu, beste aldi batzuetan, kausitzen dugu. Uste dut bi elementu hauek badaudela.

Sindikatu lanaren berezitasuna, laborantza mailan da, eta horrek zaila bilakatzen badu ere indar bat osatzen baitu aldi berean, beti beste gisara pentsatzen duten jendearekin gabiltzala erran nahi baitu. Laborari mundua ez da bereziki progresistatzat hartua, nahiz eta egintzetan, haien burua horrela aldarrikatzen duten beste batzuk baino askoz progresistagoa izan. Ez gira beti ideia progresistak azaltzen aritzen, gure borrokak, borroka anti-produktibistak baitira, banaketa borrokak, korporatismoen aurkakoak, etab. Iparrorratz hau ez da neutroa politikoki. Horregatik etengabe pedagogia erabili behar da arrunt kontrakoa naturalki pentsatzen dutenekin! Populista eta demagogoia den alderantzizko lana burutzen dugu. Zaila da, gehien bat masako sindikatu bat, pixka bat, izateko nahikaria dugularik. Ez da batere erraza populismoaren eta demagogiaren aurkako masako sindikatu bat izatea! Baina, aldi berean indarra eta zailtasuna da, eta gure berezitasuna da. Azaltzen entseatu naizen sindikatu lanari dagokionez, pozez, frustrazioez galderak egiten zizkidaten. Nik uste dut pozak eta frustrazioak momentu biziki zehatzak direla. Gehienetan ez da ez bata ez bestea. Lana da eta halako batean, emaitza da etsigarria ala ez. Baina nekezia handi horretan garrantzitsuena lagunarteko giroa da. Ahal den neurrian, beti beharrezkoa da lagunarteko giroa biziartzeko baliabideak sortzea. Erabakigarria da.

Bernard Lambert-ek zioen: "iraultzaile tristea, iraultzaile herresta da". Zinez arrazoin du. Hau garrantzitsua da horri esker segitzen ahal baita. "Plazer



sistema, onartuagoa izateko eta bere bidetik segitzeko. Sistema intentsiboaren aurkakotasunak ez du honen eraginak eztabaidan ezartzera mugatu behar, honen izaera, honen prozesua eztabaidan ezarri behar dira! Bere eragin kaltegarriak zuzentzen ahal ditu sistemak, ez bere izarea. Borroka forma eta honetatik etorri eztabaidan jartzearen arabera da dena beraz.

### **BATERA. FUNTSEZKOA, JENDEA MUGIMENDUAN JARTZEA DA.**

Pentsatzen dut Bateraren mailan, pixka bat gauza bera dela, baina molde transbertsalagoan. Departamentuaz pentsatzen dudana, eta egia dena ere beste aldarrikapenez, premiazko aldarrikapena dela diot. Bizirauteko aldarrikapenak dira.

Bateraren abantailetakoa bat da Euskal Herrian dugun mugimendu soziala dela nonbait. Ezin baitugu mugimendu soziala aipatzen ahal absolutuan, baina errealitatera ekarriz, nonbait mugimendu soziala da egintzetan, ez bakarrik foro batean. Ez du beti politikoki 10 000 metrotan izan behar mugimendu sozial gisa izendatua ahal izateko.

Gainera, desberdinak diren jende batzuk elkarrekin bizi arazten ditu Batak. Euskal Herrian, hemendik gutira, desberdinak giren jende batzuk elkarrekin bizitzera behartuak izanen girelako. Eta hobeki da gainera... Baterari esker, abertzale batzuk eta hala ez diren jende batzuk, ezkerreko jende batzuk eta hala ez direnak, %300 zuhurrak diren jende batzuk eta arriskuak hartzeko prest diren beste batzuk biltzen baitira mahai baten inguruan. Jendarte bat sortu nahi baldin badugu, ez da guti. Abertzaleei gauza anitz ekartzen dien eskola da. Behartzen gaitu -lehenago sindikalismorako erraten nuen gisara- hastapenetik bortxaz ados ez diren jende batzuekin estrategia batzuen inguruko hautsi-mautsiak egitera eta gure ideiak alderatu behar diren aldi oro eta aitzinatzeko, kakingarria da... Gainera, departamendu baterako, kontsidera dezakegu ez dugula horretan denbora gehiena pasatu behar. Baina, arrunt barneratua dut abertzale mugimenduari baliatzen zaiola. Departamendu bat eskatzen duten jendeak, ez dakigu non bukatzen duten ondotik. Funtsezkoa beraz, jendea mugimenduan jartzea da. Mugitzen ez direnak nehora ez doaz. Hauek ez ditugu nehoiz bilduko. Mugimenduari konfiantza egin behar zaio komunzki.

## **MIXEL BERHOCOIRIGOIN**

Mixelen militante ibilbidetik ainitz badugu ikasteko, hala nola estrategiak pikoan emaitako denbora eta pazientziaren garrantziaz. Ez fisik egin gabe pasatzen den denboraz, baizik eta erabaki estrategiko azkarrak hartzeko indarren metatzeko lanean pasa denbora eta pazientziaz.

Urteak pasa ziren FDSEA baitan ziren militante talde batek korporatista eta laborantza intentsibo eta industrialago baten alde egiten duen sindikatutik atera eta ELB sortzea erabaki aintzin. Baziren hainbat galdera: nola egin? Prest direnekin segidan sindikatu berri bat sortu? FDSEA barnetik mugiarazten entseatu? Edo biak? Eta hau izan zen estrategia: beste sindikat baten sortzeko laborari gehiago biltze lanak egin eta lekuko FDSEAko podere lekuak eskuratu. FDSEAREN egin molde totalitarioak agerian utzi zuen errealitatea: FDSEAK Pauen erabakitzen du, eta puntu. Gogoetak abiatuz geroz urte batzuek pasa ziren, gero eta gehiago laborari juntatu eta azkenean, 1982an bazen aski indar ELB sindikatuaren sortzeko. Historiak erakutsi du zer arrakastarekin!

Mixelek argi zuen ez zela aski ideia onak edo arrazoin ukaitea errealitatearen aldatzeko. Ideia edo asmoa besteekin partekatu beharra da. Maiz zion ados direnekin bakarrik lan egitea ez dela aski, besteengan ere behar dela adostasun maila bat erdietsi, asmoak errealitate egin nahi badira bederen.







Horrek pedagogia galdatzen du, denbora eta pazientzia. Eta erabakiak besteekin partekatuz hartzen dira: memento ona dea? Prest girea? Aski indar duguia?

Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sortu aintzin ere urte ainitz pasatu dira; indar metaketa prozesu luze baten ondorioa da. Laborantza herrikoi eta iraunkorra aldarrikatzen duen ELB sindikatuak laborarien gehiengoa biltzea ez da bapatean egin. ELB-k jendartearekin lortu duen konplizitatea, elkar ezagutza, elkar ulertzea eta elkar adostea ere ez dira bapatean egin. Bi arlo horietan sekulako lana egina du Mixelek. Bere mintzatzeko, besteen entzuteko eta debatitzeko manierak jendeen arteko errespetu giro bat sortzen zuen bilkuretan. Biziki bekan zen urduritzen, aldi oroz, batzuen errespetu ezean tematzearen ondorioz.

Mixelek erakutsi eta frogatu dauku kolektiboaren indarraren garrantzia. Kolektiborik gabe bera ez zela deus erran zaukun bere txalotzen ari ginen guzier, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen 15. urtebetetzean, 2020ko urtarrilean.

Pausuz pausu, bainan gibel ez egiteko pausu estrategikoak eginez, bere ildotik segituko dugu aintzina. Balio du, segur!

